

Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Errigoiti



Aurkibidea

Udalerria: Errigoiti

Sarrera



Errigoiti Bizkaiko barnealdean dagoen udalerria da, herrialdearen erdialdean eta Busturialdeko eskualdean kokatutakoa. Herri hauek ditu mugakide: iparraldean Busturia; ekialdean Gernika, Murueta eta Forua; hegoaldean Muxika; eta, mendebaldean, Arrieta eta Morga. Errigoitik honako auzoak ditu: Atxika-Errekalde, Eleizalde-Olabarri (elizatearen jatorrizko gunea), Metxika, eta Uriko auzoa, gaur egun Errigoitiko auzo garrantzitsuena dena. Mendebaldeko euskararen barruan Busturialdeko euskararen barruan kokatzen da errigoitiarren hizkera.

Argazkia: Etxaburu

- **Biztanleak:** 501
- **Euskaldunak:** %86,0

Ahotsak.eus-eko datu orokorrak

- Hizlariak: **6**
- Zintak: **14**
- Pasarteak: **98**
- Transkribatutakoak: **3**
- Audioak: **43**
- Bideoak: **55**

Proiektuak

- Dialektologia-EHU
- Diasporako Ahotsak
- Euskal Herriko Ahotsak
- Fondo partikularrak
- UEU Udako Euskal Unibertsitatea

Hizlariak

Miren Ensunza Valier (1934-2022)



1934an jaio zen Bilbon (bere aitak hango trenean egiten baitzuen behar), baina 5-6 urtegaz Errigoitiko Olabarri auzoko Intzunizera joan ziren bizitzen. Aita Arrietako Txakarrenekoa zen eta ama bermeotarra. 6 neba-arrebatatik bera da zaharrena. Umetan Olabarriko eskolara joan zen, baina baserriko zereginak zirela eta ez zenez askorik joaten, beranduago Meakurreko (Morga) eskola partikularretara ere joan zen. 22 urtegaz Baraiatzeko baserriko Cosme Arrienegaz ezkondu zen eta bertara joan zen bizitzera. 5 seme-alaba izan zituzten.

Julita Iturri Arrien (1924-2005)

Errigoitiko Zabale auzoko Zabalbeazkoa baserrian jaio zen 1924. urteko otsailaren 21ean, eta hantxe bizi izan zen, mendian, naturan bertan. 1968. urtera arte ez zen autoentzako biderik egin. Gurasoak ere errigoitiarrak zituen. Ama, Klaudia Arrien Garai, Zabalbeazkoa baserriko oinordekoa, erlijioak pisu handia zeukan familia batekoa. Aita, Antonio Iturri Erezuma, Errigoitiko Uria auzoko Antzuene baserrikoa, ezkondu aurretik Ameriketara 7 urte egindakoa, soinua jotzen eta idi-probetan bere anaia Leonekin ibili zalea.



Julita jakin-min handiko emakumea izan zen bere bizitza osoan zehar. Gustu-gustukoak zituen eskola kontuak, ikastea, jakitea, munduan gertatzen zenaz informatuta egotea... Magisteritza ikasteko gogoia izan zuen, baina guda zibilak bere norabidea aldatu zuela kontatzen zuen. Josten ikasten ibili zen Bilboko Adrada akademian, eta gero josten irakasten jardun zuen Errigoitiko bere baserrian bertan. Baserriko lanetan ere jardun zuen gogor bere nebeekin batera.

Harremana mantendu zuen bizitza osoan zehar Ameriketara joan ziren aitaren anai-arreba eta haien seme-alabekin. Senatari izatera iritsi zen Tony Yturri lehengusua eta haren emaztea, eta lehenago honen aita Domingo Yturri bisitan etortzen ziren Errigoitira. Familia maite zuen eta familiari buruz hamaika istorio kontatzen ditu.

Maria Rosa Iturri Arrien (1938-2025)

Errigoitiko Zabale auzoko Zabalbeazkoa baserrian jaio zen 1938ko ekainaren 14an. Gurasoak ere errigoitiarrak zituen. Ama, Klaudia Arrien Garai, Zabalbeazkoa baserriko oinordekoa, erlijioak pisu handia zeukan familia batekoa. Aita, Antonio Iturri Erezuma, Errigoitiko Uria auzoko Antzuene baserrikoa, ezkondu aurretik Ameriketara 7 urte egindakoa, soinua jotzen eta idi-probetan bere anaia Leonekin ibili zalea.



Maria Rosa oso buruargia izan zen txiki-txikitatik. Irakurzale amorratua eta oso kantari ona. Sei urte zituenerako, dotrina osoa zekien buruz. Hamahiru urterekin Gernikako moja karmeldarren barnetegira eraman zuten ikasketak egiteko, eta hantxe burutu zituen Komertzio ikasketak. Gero Bilboko bulego batean jardun zuen kontabilitate eta idazkari lanetan ezkondu arte. Bilbora ezkondu zen eta hantxe jaio ziren lau seme-alabak. Gero Mungiara aldatu zuten bizilekua. Sarritan joaten zen bere seme-alabekin Errigoitiko bere jaiotetxeko baserrira, hainbeste maite zituen guraso eta neba-arrebenera. Bertakoak dira pasarte hauetan jasotako irudiak.

Vicky Orbe Mandaluniz (1973)

Californiako Upland herrian jaioa, lau urte zituenean Euskal Herrira bueltatu ziren. Guraso biak Errigoitikoak zituen; 1964an aita artzain joan zen Californiara, 19 urterekin, eta handik hiru urtera ama. Mexikon ezkondu ziren, eta Californiara joan ziren bizitzera. Aitak behitegi batean egiten zuen lana. Susan ahizpa eta Vicky Ameriketara jaio ziren, baina ahizpa gazteena ez. Izan ere, argi zuten diru apur bat egindakoa bueltatu egingo zirela. Ondoren, aitaren jaiotetxean bizi izan dira, Orkondoa baserrian. Aitak behitegia ipini zuen bertan, eta baserritarren eskubideen defentsan ere ibili zen (ENHE sindikatuko sortzaileetako bat izan zen). Vickyk familiaren historia kontatu zigun, eta baita bere esperientzia ere.



Martin Orbe Monasterio (1934)

UEUko zuzendaria izan zen 1976-1983 urte bitartean.



Maria Zelaia (1914-2007)

Grabazioa egin zitzaionean, 1998an, 84 urte zituen.

Pasarteak gaika

Herri honetan landu eta transkribatu diren pasarteak, gaika antolatuta.

1. Aisia

1.1. San Juan suak eta ohiturak

- **Hizlaria(k)**: Ensunza Valier, Miren
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Goiria Mendiola, Nerea
- **Erref**: EGT-001/038
- **Iraupena**: 0:01:56. **Hasi**: 01:20:17. **Bukatu**: 01:22:13
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
Aisia » Jai-giroa » San Juan
- **Laburpena**: Olabarrin ez zituen San Juanak ospatzen, sua egin bakarrik. Errigoitira etorritakoan hasi zen ospatzen. Lastazaoei sua eman eta soroari bueltak ematen zizkioten kantuan.

Transkripzioa

- Ta San Juanak lehen zelan ospatuten zenduezan?
- San Juanak, hamen [...] San Juanak, e? Han niretzako San Juan ez da ixen.
- Ez?
- Ez! Hamen. Badakizu zelako aldie dauen handik hona? Ikusi be eitten [da]. Hara Bizkei ganera [idxetan] dogunien, handik ikusten da edarto: Morga ta ha Intxuse ta horrek. Ta Olabarri. Hau urrun dao. San Juanak hau de ganera. Hori. Ha behie ez da San Juanak. Han San Antonio.
- Baiñe han be ingo zenduen San Juanetako sue edo...?
- Ez! A, sue? Suek bai. Baia konbidautzie guk Santidxagoak. Morgan guk Santidxagoak ein douz jaidxek. Aittuten dozu?
- Bai, bai.
- Ta hamen, ba, San Juan hor dauen lez, hor zeledaten dan lez, San Juanak be eitten doguz ta San Antonio be erdi zelebrau [dogu], behien, behera joaten gara ta ba...
- Baiña zu gaztie ziñenien diñot.
- A! Ez.
- San Juanak zelan eitten zenduezan?
- Ezebez. Guk San Juan...
- Baiña San Juan suek-eta eitten zenduezan.
- Sue bai. Suek bai. Txolak hartu ta ein su handixe ta gero... Gari-txolak antxiñe, badakizu, ezta? Sue emon han ta kantetan: "Sapoak eta sugiek suten erre ta artoak eta garidxek kaxan gorde" ta kantetan genduzen, holan txolie suten, [...], holan. Ta soloari bueltak emon. [Entzun dozu?]
- Bai.
- Geure soloari bueltak.
- Eta ze kanta kantetan zenduen ba?
- Ba, holantxe: "Doniene ta Doniene, sapoak eta sugiek suten erre, ta artoak eta garidxek kaxan gorde" ta, ba, kanta edo, ba, holantxe, ez asko kantarik be.
- Bueno, baiña kantetan zenduen.

1.2. Karta jokoan etorria eukitea zer den

- **Hizlaria(k):** Iturri Arrien, Maria Rosa
- **Elkarrizketatzailea(k):** Elorriaga Iturri, Yolanda
- **Erref:** EGT-014/001
- **Iraupena:** 0:00:34. **Hasi:** 00:00:00. **Bukatu:** 00:00:34
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
Aisia » Taberna giroa » Jokoak
- **Laburpena:** Karta jokoan etorria eukitea (“etorridxe eukittie” Errigoitiko eran), kartak ondo etortzea da, (jokoan zehar karta onak eukitea).

Transkripzioa

- Nok irabazi deu lehen?
- Lehen??
- Neuk. Lehenengoan neuk.
- Lehen, akaburengoan, tia eta ni ibili garenien, zera... tiak irabazi deu.
- Etorridxe zelan etorten dan ixeten da.
- Ezpatie badekozu, hiruko ezpatie da...
- Baia etorridxe be euki deu, e? Eta gero kartak ondo etorri.

2. Ohiturak eta bizimodua

2.1. Jesusen Bihotza eta senar-emazteak

- **Hizlaria(k):** Iturri Arrien, Maria Rosa
- **Elkarrizketatzailea(k):** Elorriaga Iturri, Yolanda
- **Erref:** EGT-013/001
- **Iraupena:** 0:01:15. **Hasi:** 00:00:00. **Bukatu:** 00:01:15
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak
- **Laburpena:** Gizona kexatu egiten da andreak Jesusen Bihotzaren irudiari (argi eta guzti ipinita daukanari), berari baino kasu gehiago egiten diolako. “Harek defendiduko dau!” esaten du ironiaz. Maria Rosak berak ere etxean Jesusen Bihotzaren irudia daukala erantzuten dio. Orduan gizonak Maria Rosari: “Ai, zu be holan, haren lez???” Eta Maria Rosak erantzun: “Zelan guruzu (gura dozu) ba, inpernuko demoniñoagaz joatie guruzu (gura dozu), ala??”. Baina gizonak kexaka jarraitzen du, bere emazteak Jesusen Bihotzaren irudiari berari baino hobeto atendidu eta dena aldrebez egiten diolako, “ea zer egingo dauan berak andreagaz “dio (Pasartean Maria Rosa Iturri Arrienen Errigoitiko euskararen aberatsa ederto baten ikusten da.“Ha dau (dago) egotekoa!” moduko esamolde eder-ederrak gure Bizkaiko euskararen altxorren ezaugarri dira.) Bitartean andreak senarrari buruz: “Arregleko da, gure (gura) badeu (badau)!” esaten du.

Transkripzioa

- Andriek hattik kanpora bota??

- Ez, horrenbeste ez. Han dekost Jesusen Bihotzan zera be imindde dekost entradan, Jesusen Bihotzan imaginie ta harek defendidu didxen. Harek defendiduko deu!. Argidxegaz ta imindde deko entradan Jesusen Bihotzan imaginie. Harek defendiduko deu!

- Ba, hori señaile ona da. Neuk be badekot komedorien, baia argi barik. (Esan notsan ta)

- Ai, zu be holan?? Haren lez??

- Zelan guruzu, ba?? Inpernuko demoniñoagaz guruzu ala joatie?? (Esan notsan ta)

- Ez, horrenbeste ez, baia... baia... gizonari ondo atendidu lehenengo! Ez gizona hortik en bandan joan, eta bera han... han... zerien!

- (Antza gizonari etso (ez deutso) atendiduten)

- Berak esaten ei tso (ei deutso) gauze bat, eta berari aldrebes eitten ei tsoz (ei deutsoz) gauze guztidkek, eta ia berak zer eingo deuen andriegaz.

- (Ha dau (dago) egotekoa!!) (Maria Rosak gizonari buruz)

- Eskribidu tsue (deutsue) amerikanuek? (Gero hurrengo ta...)

- Feliziteu ein tsie (deutsie), feliziteu ein tsie, nebak, nebak feliziteu tsie, baia ez, oniño...

- Ta andrie beste baten tope noan mezatik urtenda ensegida ta.... Zer eitten zu (dozu) hemen ta... "Hor dabitzu gizona bueltaka" esan notsan.

- "Arregleko da, gure (gura) badeu (badau)!! " Andriek.

Transkripziorik gabeko pasarteak

Ondorengo pasarteak gaika landuta eta kodifikatuta daude, baina oraindik transkribatu gabe.

1. Umetako jolasak (EGT-001/002)

Olabarrin soka-saltoan, tabaka, "kuike", "erreteroan"... jolasten zuten. Gehien bat neskekin jolasten zuen. Tronpa beti erabiltzen zuten bere anaiek. Zela erabiltzen zuten kontatzen du.

2. Eskolara Olabarrira eta Meakurrera (EGT-001/005)

Olabarriko eskolan ibili zen. Baserrian lan asko egin behar izaten zenez, ez zen asko joaten eta aitak gero partikularretara bidali zuen Meakurrera. Neskak eta mutilak bereizita egoten ziren eskolan.

3. Mallabiko maistra, Benita (EGT-001/006)

Mallabiko maistra izan zuen, Benita. Hari buruzko kontuak aipatzen ditu.

4. Dotrina Meakurren euskaraz, eskolan erdaraz (EGT-001/007)

Dotrinara Meakurrera joaten ziren, Olabarrin elizarik ez zegoen eta. Don Enrike Pujana izan zen abadea. Neska-mutilak elkarrekin joaten ziren eta euskaraz izaten zuten. Eskolan zigortu egiten zituzten euskaraz egitearren: jo, jolasordurik gabe laga...

5. Eskolako materiala (EGT-001/008)

Ikasgelan zertzuk izaten zituzten kontatzen du. Ikuskatzailea etortzen zenean, kuaderno garbia erakusten zioten eta egunerokoan beste bat erabiltzen zuten. Egurdian etxera joaten ziren bazkaltzera.

6. Abereengatik domeketan ere lan (EGT-001/009)

Abereak izanez gero, domeketan ere lan egin behar izaten zen. Bost-sei behi izaten zituzten eta arto asko ereiten zuten, soro handiak zituzten. Lexikoa. Esnea eta arrautzak saltzen zituzten. Gose garaian, Bilbotik eta janaria eroatera etortzen ziren Olabarriraino.

7. Azpigarria basotik eta belar lehorra astoarekin (EGT-001/012)

Abereentzat azpigarria basotik ekartzen zuten. Belar lehorra astoarekin gurdian ekartzen zuten etxera.

8. Errotara artoa eta garia ehotera (EGT-001/014)

Errotara Muxikara ere joandakoa da. Bere nebari "pesetas" esaten zioten. Anekdotak bat kontatzen du. Labeko sua egiten zuten. Errotan bereizi egiten zen artoa jateko edo abereentzat bazen, leku desberdinetan ehoten zen. Astoz joaten zen errotara.

9. Aita frentean eta ama umeekin Zamudion (EGT-001/015)

Aita frentera eraman zuten eta ama Zamudion bizi izan zen ume jaioberriekin. Ama ez zen babeslekura joaten, ume txikiak zituelako, eta ikusi zuen zela lehertu zen bonba bat babeslekuan.

10. Aitaren tatuajea eta Mirenen jaunartzea (EGT-001/016)

Ezkon aurretik, itsasoan lan egin zuen aitak. Besoan aingura bat zeukan tatuatuta. Mirenek zazpi-zortzi urterekin egin zuen jaunartzea, jostunak eginiko soineko arrosa batekin.

11. Umeari izena ipintzeko tirabirak (EGT-001/017)

Bataiora ez ziren aita-amak joaten. Umea jaio eta egunean bertan edo biharamunean bataiatzen zen. Semeari izena jartzeko zer nolako tirabirak erabili zituzten kontatzen du.

12. Orduko hiletak (EGT-001/018)

Gorpua etxetik andariak eramaten zuten elizara. Gauez hilotzaren ondoan egoten ziren arrosarioa erreztatzen. Hileta orduan gorpua mezatan egoten zen. Bazkaria ematen zuten etxeok.

13. Meza latinez eta sermoia euskaraz (EGT-001/019)

Mezak latinez ematen zituzten eta ez zuten ezer ulertzen. Monagiloak erantzuten zion abadeari. Bizkarrez ematen zuen meza eta sermoia emateko pulpitora igotzen zen eta euskaraz ematen zuen. Konfesatzera joan eta tontakeriak esaten zituztela dio.

14. Inguruko herrietako jaietara (EGT-001/022)

Mungiako jaietara joaten zen eta bisigu asko egoten zen. Errigoitira Santa Agedatan eta San Antoniotan etortzen ziren aitarekin. Garagardoa ematen zien baina ez zitzaien gustatzen.

15. Etxeko sagar-motak (EGT-001/023)

Etxean sagarrondo batzuk bazituzten: "musturluziek", Larrabetzu sagarrak, errezil sagarrak...

16. Senarrarekin bizikletaz (EGT-001/024)

Bizikleta zeukan Mirenen senarrak eta elkarrekin ibiltzen ziren. Morgatik Bilbora autobusa egoten zen egunean pare bat aldiz.

17. Orduko janzkera eta lehenagokoa (EGT-001/025)

Aste Santuetan arropa berria janzten zuten. Arropa asko josten zituzten. Senarraren aitak jaunartzea oinutsik egin zuela kontatzen du, abarketak lepotik zintzilik zituela. Erromeriara domeketako arrokekin joaten zen.

18. Ura etxetik gertu (EGT-001/026)

Iturria eta beherago putzua zituzten etxetik gertu, arropak garbitzeko. Ezkondu eta Errigoitira etorri zenean, ez zeukaten urik etxean. Labaderoa eta abereek ura edateko lekua bazuten.

19. Plantxa txapan berotzen zuten (EGT-001/027)

Orduko plantxa zelakoa zen kontatzen du. Txapa gainean edo brasarekin berotzen zuten plantxa.

20. Tipula erein eta txerria hil, ilbeheran (EGT-001/028)

Tipularen hazia ereiteko eta txerria hiltzeko ilbehera aukeratzen zuten. Oraindik ere urdaiazpikoa gatzetan edukitzen du.

21. Mediku xelebrea Olabarrin (EGT-001/029)

Mediku xelebrea zeukaten: gorbataztat galtzerdi bat erabiltzen omen zuen. Mirenen amak ez zeukan medikuarekin konfidantza handirik.

22. Erditzerako emagina etxean (EGT-001/030)

Mirenek erditzerako emagina ekarri zuen etxera, gernikarra eta ospitalean lan egiten zuena. Bidaia ordaindu behar izaten zion taxistari, Pedro "Txirri"ri.

23. Kanpai-hots motak (EGT-001/031)

Ermandadeen bitartez egiten zuten abereen aseguria. Baserri bat erre eta jendearen laguntzarekin egin zuten aurrera. Sua bazegoen, kanpaiak larri-larri jotzen zuten. Aita Santua hiltzen bazen ere desberdinak izaten ziren. Umeren bat hiltzen bazen, aingeru-kanpaiak jotzen ziren. Gizonezkoa hiltzen bazen, bi kanpai jotzen zituzten eta emakumezkoa bazen, hiru.

24. Mungiara ile-apaindegira (EGT-001/032)

Gaztetan ez ziren makilatzen, ezta bere alabak ere. Mungiara ile-apaindegira joaten zen. Sei hilabeterik behin, permanentea egitera joaten zen.

25. Gizon bati sorgina agertu zitzaionekoa (EGT-001/035)

Istorio bat kontatzen du: gizon bat ilargi zuriarekin soroan omen zebilen lanean eta etxera joandakoan, artilea egiten goruetan hasi omen zen. Katuak esan omen zion "gizona izan eta goruetan?" eta gizonak erantzun "katua izan eta berbetan?". Berehalakoan katua tximiniatik gora joan omen zen.

26. Sorginak errekatxoan (EGT-001/036)

Domeketan irtetzen zirenean, beldurrez joaten ziren bidean. Sorginak errekatxoan ileak orrazten egoten zirela entzun izan du. Holako kontuekin ikaratu egiten zen.

27. Gabonetan marraskiloak jateko (EGT-001/037)

Gabonetan marraskiloak jaten zituzten. Bere amak ez zekien intxaurre-saltsa egiten.

28. Markes Txikito (EGT-007/001)

Julitaren amaren aittittek Juan Antonio Arrien izena zuen, baina Markes Txikito esaten zioten, baserri biren ugazaba zelako, Errigoitiko Zabaleko baserriaren ugazaba eta Foruko Uribarriko baserriarena, eta herrian alkate ere izan behar izan zuelako. Hark baserri biak erabiltzen zituen. Eta egun baten Uribarriko baserrian larritu eta sutondoan jausi zenean, Zabalen bizi zen Bittor semearen bila etorri ziren, eta hiru kilometro badaude baserri batetik bestera, Zabaletik Metxikara kilometro bat, Metxikatik I(U)ntxurriñara beste kilometro bat, eta I(U)ntxurriñatik Uribarrira beste bat. Juan Antonioren seme-alaba bi, Bittor eta Anakleta, Zabaleko baserrira ezkondu ziren (etxekonak izateko), Bittor, Julitaren aittitte (aitona), Julitaren amaren aita (Laukarizko Ambrosia ezkontide zuela), Zabaleko baserriaren oinordeko izateko, eta Anakleta arreba (Larrabetzuko Aizpuru ezkontide zuela) baserriaren beste erdira, gozamenean, bere aita Juan Antonio bizi zen bitartean. Juan Antonioren beste seme bat Errigoitiko Altoako baserrira ezkondu zen hango oinordekoa zen alabarekin.

29. Ameriketatik etorrita, baserri erdiari gutxi iritzi (EGT-007/003)

Errigoitiko Uriko Antzuene baserrikoa zen Julitaren aitak, Ameriketatik etorrita, Zabaleko baserrira baserri honen oinordekoa zen Julitaren amarekin ezkondu zenean, baserri erdiari gutxi iritzi zion, eta baserriaren beste erdian gozamenean bizi zen Anakletari eta Aizpuru abizeneko bere senarrari 16.000 erreal (4.000 peseta) agindu zizkien, eurek alde egin eta baserri osoarekin geratzeko. Orduan 16.000 erreal diru asko zen. Hauek pozik joan ziren Larrabetzuko baserri batera, Aizpuru hangoa zelako, eta ezkonberriak Zabaleko baserri osoarekin geratu ziren.

30. Aittitte Bittorrek eta amama Ambrosiak eztabaida bat ere ez (EGT-007/005)

Gazte-gaztetatik bost seme-alaba txikirekin alargun geratu zen Ambrosiak esaten zuen berak eta bere gizonak ez zutela inoiz eztabaida bat ere izan, baina berak gizonari jaietan painelua beti ondo lisatuta ipintzen ziola. Julitaren amak, Klaudiak, kontatzen zion Julitari, Klaudiari bere ama Ambrosiak esaten ziona.

31. 5.000 erreal ostu zizkiotelako disgustuaz gaixotu eta hil (EGT-007/006)

Bittor senarra, Bittorian (Gasteizen) idiak erosten edo saltzen 5.000 erreal ostu zizkiotelako, gaixotu eta hil zela kontatzen zuen amama Ambrosiak. Orduan diru asko zen 5.000 erreal, idi -buztarriaren balioa edo. Lapurreta haren ostean, etxera etorrita, senarrak ezin arteak hartu. Eta Ambrosiak bere gizonari halako buruko minik ez egiteko esaten zion arren, horregatik euren bost seme-alabek mila erreal bana gutxiago baino ez dituztela izango, eta ez dela ezer hori eta norbere osasuna dela hobe eta horregaitik halako buruko minik ez hartzeko esaten zion arren, senarrak ezin arteak hartu. Senarrak haxe (huraxe) eta haxe(huraxe) beti buruan, eta harexek gaixotu ei zuen. Bittor senarra hala gaixotu eta hil zela kontatzen zion Ambrosiak txiki-txikitatik aita barik geratu ziren alaba Klaudia eta beste seme-alabei. Eta Klaudiak alaba Julitari esaten zion bere ama Ambrosiak esaten zuena.

32. Julitaren umetako oroimenak amama Ambrosiaz (EGT-007/008)

Amama Ambrosia ohean hilda egon zenean eta jendea haren inguruan errezetan, bera ere ume txikia zela belauniko pareta (jarrita), gogoratzen du Julitak. Eta hil baino arinagoko haren oroimena ere badu: amamak, ohean zegoela, berari zer ikusi duen ortuan galdetu, eta berak amamari ortuan zegoen erle moltsoari buruz esaten ziola. Erle asko eurek orduan ortuan, eta erleak, jaiotzen direnean, moltsotu egiten dira, eta berak ortuan erle moltsoa zegoela esaten zion amamari. Eta amamak berari lurrean aztrakana (aztarrika) egiteko esaten ziola akordetan da Julita, amamak umea halaxe ikusi gura zuela.

33. Ambrosiak seme-alabak zeozer ikastea gura (EGT-007/010)

Ambrosiak bere seme-alabek zeozer ikastea gura zuen. Juan eta Bitturio semeek, batak abade izateko ikasten zuen, eta besteak fraide izateko. Foruko fraideetara, frantziskanoetana, joaten ziren egunero ikasten menditik oinez. Bidean beti ikusten ei zuten abade izateko Forura ikasten joaten zen beste herikide bat, eta hura harrapatu gura izaten zuten bidean, baina hark eurek baino arinago egiten zuen beti-beti. "Inork be ezin harrapeu bidien ha!".

34. Ikasten hasi orduko baserriko lanak egin behar (EGT-007/011)

Foruko fraideetan ikastetik etorrita, etxean ikasten hasi orduko, seme biek baserrian egunero egin beharreko lanak aginduta eukiten zituen Ambrosiak: gari sasoian zerreez gari-txolari burua kendu behar, artoak zuritu, udan Berrina basotik egurrak ekarri behar... Eta egun baten ezin egurrak topatu (jausita zeudenak eta ekarri behar izaten zituzten), eta auzoan egur pila eginda ikusita, etxera ikasten arinago etortzeagatik, basotik barik, auzokotik ekarri zituzten egurrak. Baina Ambrosiak ezagutu egurrak ez direla eurenak, egurrak auzokotik ekarri zituztela, eta semeek gezurretan basotik ekarritakoak zirela zioten arren, ez esateko gezurrik eta egurrok auzokora itzultzeko agindu zion Ambrosia amak. Gehiagotan ez ei zuten egin halakorik!

35. Kandelarekin ikasten gaueko hamabiak arte (EGT-007/012)

Anaia biak kandelarekin ikasten egoten ziren gaueko hamabiak arte. Osaba Juanek laster ikasten ei zuen, baina osaba Bitturio burugogorra, eta gehiago

kostatzen ei zitzaion. “Oniño (oraindino) hor hau (hago)? Zelan jagiko haz (haiz) bidxer (bihar), ba?” esaten ei zion Juanek ohetik bere anaiari (Bitturio gazteagoa zen). Gero osaba Juan Bitoriara (Gasteizera) joan zen abade izateko ikasten, eta osaba Bitturio Algortara fraide trinitarioa izateko.

36. Juanita Bilbora neskame (EGT-007/014)

Ambrosiaren Juanita alaba (bigarren alaba), zeozer ikastearren, Bilbora joan zen neskame Fonda Estrellara. Fonda Estrellan egon zen beharrean eta han gauza asko ikasi zituen Juanitak. Eta pretendiente bat izan ei zuen. Bere miresle hori berarekin berba egiteko bera hegalean baten harrapatu guran ibiltzen zen, eta bera harengandik ihesean beti. Horretara pasatu ei zen bere hango denbora.

37. Eustakiak txerriari ezin oratu eta erdara ulertu ez (EGT-007/015)

Ikasten urrunera botatzeko orduan ez zen egon dirurik eta Servicio Doméstico izaten zen kolegio modura edo Bilbon zegoena. Mojen lekua zen, eta gero eurek topatzen zieten lan egiteko etxe ona edo zelakoa gura den. Eta Eustakia, Ambrosiaren alaba gazteena hara joan zen. Han txerriak eukiten ei zituzten mojek, eta txerriak jagoten ibiltzen ziren. Egun baten txerria gaixorik, eta txerriari oratzeko handik eta hemendik, eta eurek taiurik ez. Orduan “¡Vayais inútiles!” esan ei zien mojak. Eta eurek berba horrek zer esan gura duen jakin ez!

38. Abadeari ezetz esatea Jaungoikoari ezetz esatea (EGT-007/016)

Eustakia Servicio Domésticotik zerbitzen joan zen. Algortan egon zen neskame, señorita Maria Areilzarekin, andre ezkongabea. Andre honek estimadu euki zuen Eustakia, guztiz estimadu, ze negarrak eta egin ei zituen Eustakia handik irten zenean (“urten” bizkaieraz transitiboa “ Eustakiak handik urten ebanean”). Eustakiak ere guztiz estimadu zuen señorita hori, baina Don Juan abade lehengusuak berari zerbitzeko deitu zion, aurretik berari zerbitzen euki zuen Sofia arreba-ordea moja joan zitzaiolako. Eustakiak ez zuen Algortako señorita utzi eta lehengusu abadeari zerbitzeko gogorik, baina onartu egin zuen, abadeari ezetz esatea Jaungoikoari ezetz esatea zela uste zuelako. Eta abadeari zerbitzen hil zen Arrietan (56 urterekin).

39. Txori habitan abarketak apurtzen (EGT-007/018)

Osaba Juan abadea (Juanita eta Eustakiaren neba eta lehengusuaren izenkidea) lehenengoan Ribera de Valderejon egon zen abade hiru edo lau urtetan. Han euki ei zuen Mungiako Uriarteko Don Frantzisko ere berarekin abadetzarako ikasten. Ribera de Valderejo paraje arbolatsua zen eta txori habitan abarketetan ere apurtzen ei zion!

40. Ambrosiak semea herrian gura abade (EGT-007/019)

Ambrosiak (gaztetatik alargundua) Juan semea herrian gura zuen abade. Semea herrira ekartzen gatx (gaitz/zail), baina Ambrosiak obispaduko baten baten bitartez lortu zuen, ze berak baten baten pozera bizi gura duela eta. Errigoitiko parrokoak gura ez Juan Errigoitira abade etortzea, baina, danaren gainera Juan Errigoitira abade zetorrela ikusi zuenean, Ambrosiarengana joan zen albistea ematen, poztu balitz moduan eginez. Eta Ambrosiak bere artean, bere barruan esaten zuen: “ bai, zure guraizana ez da izan, baina, tire(tira), neure guraizana izan da eta, dator”. Eta Errigoitiko Sallobanten (auzo

honetako elizan) egon zen abade, eta abade santuetariko bat izan ei zen. Horixe esaten zuten orduko sasoiko denek, ze denei zerbitzekoa izan ei zen

41. Hainbeste behar eginda, 36 urterekin hil (EGT-007/020)

Osaba Juan abadea 36 urterekin hil zen kuntzurrinetako gaixoaz (guntzurrinetako/giltzurrinetako gaixoaz). Berak min eta min izaten zuen, baina, minak izan arren, orduko medikuak ezer ulertu ez. Eta udan etxera oporretan etortzen zen anaia fraideari itxaroten egon zen, San Sebastianeko (Donostiako) mediku batengana elkarrekin joateko, eta azkenean berandu eginda joan zen, joan zenean, kuntzurrun (guntzurrun/giltzurrun) biak infektatuta zeuzkan. Barru ederreko pertsona izan zen, denei laguntzekoa. Bere abade lanaz gain, bere abade beharrak egin eta gero, Zabaleko baserrian ere, gauzak ondo ikusi gura eta, hainbeste behar egiten zuen: artoaren kapazeaz eginda zeuden koltxoien orde, muelledun koltxoiak egin zituen, eta koltxoien muelleak latroa eta zerrotaz berak egin zituen. Hainbeste lan eginda, hainbeste izerdi emanda, 36 urterekin kuntzurrunak (guntzurrunak/giltzurrunak) huts eginda, gaixotu eta hil zen (1925ean, eta bere ostetxoan hil zen bere ama Ambrosia).

42. Guda Zibilean Saseta bataloiko gudariak Zabaleko baserrian afaritan eta lotan (EGT-007/022)

Guda Zibila etorri zenean, osaba Bitturio fraidea Zabaleko baserrian euki zuten aldikada baten. Fraideak komentuan arriskuan zeudela esanda etorri zen baserrira (gorrien beldur). Elgetako frontea apurtuta, guda baserriraino heldu zenean, soldadu milizianoek, baserrira etorrira, ea noiz ebakuatu behar zuten esaten zieten, baina Saseta Bataloiko gudariak, ostera, milizianoek ez egiteko jaramonik, eta etxean geratzeko, etxean geratzea seguruagoa dela, etxetik irten direnak (Bizkaieraz transitiboa: “urten dabenak”) txarto dabiltzala. Auzoko goikoak Gordejuelara joan ziren koinetuaren kamionetaz, baina besteak, auzoko Alejo, goiko Santi eta eurek geratu egin ziren. Iluntze horretan edo hurrengoan Saseta bataloiko gudariak Zabaleko baserrian afaritan eta lotan geratu ziren. Julitaren izekoak oheak eta afaria ere ipini zizkien. Pernil zati itzelekin, tarterakada bi pernil ipini zizkien, eta gudariak tenedorkadan jaten zuten pernil bakoitza taloarekin, ogirik ez zen egoten. Ohera joan zirenean, atea joko zuten lagunen zain zeudela eta berak atea ireki beharko ziela esan zioten gudariak Julitaren aitari. Esan eta egin, goizaldean atea jo. Eta gudarietako bat badaezpada ate ostean fusilarekin zegoela, Julitaren aitak atea ireki zienean, Solluben frontea aputu zela eta Bilbora ihes egin behar zutela zioten gudari lagunak ziren. Eta baserrian arriskuan zegoela eta, eurekin eraman zuten osaba Bitturio fraidea gau ilun baten, Boliña burutik behara, harririk harri, buelta-bueltaka, nondik zihoan ere ikusten ez zuela. Eta Algortan (Trinitarioen komentua han) edo Algortara joateko moduko leku baten utzi zuten.

43. Soldaduak ihesean eta moroak zaldi gaineen fusilarekin baserrian agertu (EGT-007/023)

Goiz hartan hasieran zaratarik ere ez zen entzuten. Bat-batean guda amaitu zela zirudien. Baina Julitaren izekoari (Juanitari), tresnak garbitzen ziharduela leihotik begira zegoela, soldaduren bat erratuta, kontrako norabidean mugitzen zela iruditu zitzaion. Eta hahor (hara hor)! Bat-batean soldadu pila agertu ziren arrapaladan ihesean, euren baserri ondotik, eta eurek beldurretan ateak barrutik itxita, etxera soldaduak sartu ez daitezkan, etxera sartuz gero, tiroka hasteko ere kapaz direla eta. Eta leihotik ikusten zituzten, sudurra dariola ere, soldaduak ihesean arrapaladan euren etxe ondotik. Dena tiroa!

Eurek beldurretan, eta Kanu txakurra ere, makur-makur eginda, bere habiaren barruan geldi-geldi. Bitartean, etxetik irten beharra izanez gero han lekurik izango zuten galdetzen, Goiko Santirekin Biontzolara joanda zegoen aita agertu zen etxean. Bidean sugoiaren moduan narras ibilita salbatu zutela euren burua esan zuen. Gero, une hartan euren etxean zegoen auzoko Teodorak esaniko moduan, frankistak ziren Bizkanetik behera Sollubetik zetoztenak, zaldi gainean banderekin. Eta etxe ondoko sasi batzuen ostetik moroak agertu zitzaizkien fusilarekin. Euren aita eta, esnea eskaini zieten. Eta haiek han gorrikerik zegoen galdetu zieten. Eurek ezetz erantzun zieten, danak joan zirela. Egurren gainean lehortzen utzitako amaren kamisa, jugoi eta arropa zuria errendizio eta entregadako bandera zuritzat hartu zuten, eta ez zieten ezer egin.

44. Ama batek zer egingo lukeen semea kartzelatik ateratzeko! (EGT-007/025)

Frankok Saseta bataloiko gudariak kartzelan sartu eta semea kartzelan zeukalako, ama bat (alabak edo lagunduta) Bilbotik Errigoitiko baserrira oinez etorri zitzaien, gerran bere semeak euren osaba Bitturio fraideari lagundu ziolako eta salbatu zuelako (apur bat gehituta zioan), semea kartzelatik ataratzeko laguntzaren bila. Baserrira, bidean topatu zuten hango elizako abadearen azalpenagatik aurkitu zutela esan zieten. Ama batek zer egingo lukeen semea kartzelatik ateratzeko! Ama batek Bilbotik hareek denak bide guztiak oinez egin! Eurek osaba Bitturioren helbidea eman zioten, harekin harremanetan jartzeko. Eta osaba Bitturio fraideak informe ona eman ziela esaten zuen.

45. “Ez zagoz pozik ala, Klauditxu?” (EGT-007/027)

Ambrosiaren alaba zaharrena, Klaudia (Julitaren ama), gaztetxotan lehenengo bordetan ikasten ibili zen Gernikako mojen komentura. Orduan bordetea gauza handia zen. Eta gero zerbitzen joan zen Bilbora. Ur beroaren bila joaten zen, eta baldakada ur beroa ekartzen ibiltzen zen, koltxoia edo mantak garbitzeko. Amak aholku bat emanda utzi zuen Bilbon: “Klauditxu, buruko orratz baltz bat topetan baduzu ere, ugazabari eman, berea da eta!”. Ama ikusten joaten zitzaionean, negar egiten zuen Klauditxu alabak, eta amak esaten zion: “Ez zauz (zagoz/zaude) pozik ala, Klauditxu?”. Eta berak erantzuten zion: “ Ni pozik nago, ama, baina zeu ikusi eta nik negar.”

46. Antzueneko aittitte Felix eta amama Modesta (EGT-007/029)

Aittitte Felix hargina izan zen. Gernikako zubia egiten ere ibili zen. Eta beharretik etxera etortzen zenean egiten zuen: abarketak jantzi eta sutondoan parau (jarri). Eta amama Modesta ibiltzen zen kortako beharrak eta baserri etxeko behar guztiak egiten.

47. Etxea erosteko dirua Ameriketatik bota aitari (EGT-007/030)

Julitaren aitaren jaiotetxea, Antzuene baserrira, ez zen izan jatorriz euren (errentan hartutakoa baino, errentadoreak ziren), baina erosi egin zuten. Julitaren aita Antzuene baserrira erosteko dirua Ameriketatik bota zion bere aitari. Eta Ameriketatik etorri zenean, aita berari eman gura izan zion etxea, baina berak ezetz esan zion, anaia Lioneri (Leoneri) emateko esan zion, aita Lion (Leon) seme gazteena denbora guztian etxean laguntzen euki zuelako.

48. Julitaren disgustua Errigoitiko eskolan (EGT-007/032)

Errigoitiko eskolan ume asko egoten zen orduan. 40 ume edo edukitzen zituen irakasle bakoitzak. Ez zen egoten lekuri, eta eurek berandutxo hasi ziren eskolara. Julita 8 urterekin hasi zen Errigoitiko eskolara, eta 10 urterekin igaro zen eskola txikitik eskola nagusira. Eskola txikiko irakaslea Doña Ines Aldana izan zen, eta eskola nagusikoa Doña Carmen Torres, Castrokoa. Irakasle honek askatasuna ematen zuen idazlana egiterakoan bakoitzak gura zuen gaiari buruz egiteko. Eta Julitak “ Los dos amigos” eskolako irakurgaiari buruz egitea pentsatu zuen. Idazlana egiteaz gain, irudia marraztu behar zuten. Idazlana eginda zeukala, Julitak ezin lortu bere gustuko marrazkia egitea. “Motz urtetan eustan!! (itsutsi irtetzen zitzaidan)” dio. Eta borratu eta borratu, rast! Orria apurtu! Enee! Hura izan zen akabua beretzat, ez zion ardura orduan hil balitz ere ez, hura beretzat disgustu mortala izan zelako. Orduan esku biekini burua estalita mahai ganean parau (jarri) zen, eta maestreak igarri zeozer gertatu zaiona. Eta koadernoak erakusten joateko agindu zion. Baina “bera bapez joan”, esku biekini burua estalita, hantxe geldi! Ha apurtua eraman baino lehenago, eskolatik etxera bota balu ere gurago berak! Maestreak koadernoak eskatu eta eskatu, eta bera bapez joan (batere ez joan), esku biekini aurpegia estalita hantxe egon, irakasleari jaramonik egin barik. Koloreak pasauta egon zen, txispatuta. Eta azkenean irakasleak ez zion jaramonik egin. Eta gero bere errakuntza hura zerekin estaliko zuen, zer egingo zuen, ezin pentsatu eta ezin pentsatu ibili zen. Azkenean pegamentuaz eta kalkamoniaren batekin edo estali zuen. Huraxe izan zen Julitak eskolan pastu zuen disgusturik (atsekaberik) handiena.

49. Errigoitiko eskolan barrea eragin zienak, erdararik jakin ez eta (EGT-007/034)

“Nombres de liquidos” galdetu irakasleak eta “patrolio” bota zuen batek, eta “nombres de pájaros” galdetu eta “el txepetx” bota zuen beste batek, eta halakoetan, denak barreka.

50. Umetan txupinka olgetan (EGT-007/036)

Julitak txupinka olgetea zelan izaten zen azaltzen du. Bando bitan jarrita, lehenengo bakoitzak bere bandorako arin egiten onenak zirenak aukeratzen zuen, hamarna bando bakoitzerako edo. Eta gero “ txupin” bestea ikutzea izaten zen (olgetea bestea ikutzea lortzean zegoen, hori zen txupin egitea), baina bestea “txupina” esaten zioten marra zapalduta zeukala ikutuz gero, ez zen ezer lortzen. Hala, elkarren atzean ibiltzen ziren arineketan soloetan. Hura izaten zen olgetan egitea! Regina izeneko auzokoa, abadearen neskamea zena, barda batekin irtetzen zitzaien (“ urtetan euskun” dio, bizkaieraz “urten” transitiboa), bere soloa zapaltzen zutelako guztiz haserre:“zantarrok, lotsabakook!”

51. Julita Bilbon josten ikasten egon zenekoa (EGT-007/038)

Julita josten ikasten ibili zen Bilbon, Buenos Aires kalean, “Academia Adrada”n. Bertan jan eta bertan lo egiten zuen, eta bertan egon ziren bere moduan ikasten lekeitiar bat eta Miranda de Ebroko bat. Eta Burgosko neskame bat euki zuten etxean, txikitxo bat. Lekeitiarrak neskame horri “El conejo” (“Untxia”) esaten zion. “¡Aquí está el conejito!” (“Hemen dago untxitxoa!”) eta esanez, horretara beti burletan ibiltzen zuen aurretik. Orduko unekadan Julita bertan eskilaran zegoen ileapaindegira joan zen ilea ebakitzen. Ileapaindegian ilea “a la melena” ebagi zioten, aintzinako poetek eramaten zuten erara, Julitari ilea horrela eramatea gustatzen ez zitzaien arren. Eta

etxera joan zenean, lekeitiarrak ilea poeten erara orraztu ziotela esan zion. Eta gauez, eurek sukaldean afaritan zeudela eta ugazabandrea bere familiarekin saloian, halako "saltserie" antzekoa zen lekeitiarrak Julitari bota zion: " ¡A ver tú, poeta, dile alguna poesía a este conejito!". ("Ea zu, poeta, esaiozu poesiaren bat untxitxo honi!"). Eta Julitari bat-batean irten zitzaion: "Por entre unas matas seguido de perros, no diré corría, volaba un conejo." Berak hori esanez batera, enee!, hasten da barreka lekeitiarra... etxea ere bota beharrean! Eta saloian zeuden ugazabandrea eta umeak zer gertatu ote zen jakin guran irten, Lekeitiarrak gogo biziz azaldu, eta Julitak poesia osoa bota.

52. Don Vicente Urkiza abadearekin umeak guztiz pozik dotrina ikasten (EGT-007/040)

Julita eskolara hasi zenean, Errigoitiko Metxikan eta Sallobanten Don Vicente Urkiza, Meñakako semea, egon zen abade. Abade gaztea izan zen, baina baliokoa eta zentzun handikoa. Hark exkursinoan, irtenaldiak egiten eramaten zituen umeak udan, mendian bertan jatekoa egiteko, jatekoak astoan eramanda. Urte baten Sollube mendira eraman zituen umeak, eta han bertan hasi ziren jatekoa egiten, Julita baino zaharragoak hasi ziren egiteko horretan, lapikoa harri biren artean ipinita sutan, eta lehertu eta ihes egin zien.

53. Don Vicente Urkiza abadeak umeei euren gustuko liburuak eta mahaspasak opari (EGT-007/041)

Umeei dotrina irakasten itzelezko dohaina zuen abadeak. Dotrinara ordua baino arintxoago joaten zenari opariak ematen zizkion, mahaspasak edo bai batzuetan, baina gehienetan liburuak, umeei gustatzen zitzaizkien liburuak, "Txomin ikasle" eta horrelakoak. Eta Julitari ere eman zion baten liburua. Eta Julitak liburu hura guztiz estimadu euki zuen, ezin estimaduago. Baina liburua etxera ekarrita, euren Rufino neba txikiari liburu haxe (huraxe) gustatu. Erlea atzetik, eta ihesean zihoan mutil baten irudia zeukan gainean liburuak, eta Rufino neba txikiari ere haxe (huraxe) gustatu, eta amak Julitari Rufino neba txikiari liburua emateko esan, eta Rufinok liburua apurtu! Hura izan zen disgustua! Julitarentzat disgustu mortala.

54. Paparra lorez beteta dotrinara (EGT-007/042)

Dotrina irakasten apartekoa zen abadea. Ordurako joan behar izaten zuten, baina baten Julita eta Tere laguna, erreka ondoko lore polit txiki- txiki- txikitxoak paparrean zeinek politoago ipini errekan olgetan ibili, eta gero: "enei! oraingo izango da dotrinarako sasoia!". Joan ziren arrapaladan, eta dotrinarako ordua pasatuta! Eta eurek, lorak paparrean badaramatzate ere, akordurik ere ez! Paparra lorez beteta dutela dotrinara! Eta denak barreka eurei! Eta eurek, zeri egiten ote zioten barre (euren buruari galdezka), (konturatu barik) papar guztia lorez beteta eginda eurek. Abadeak berak ere barre: "zer ibili deue (dabe/dute) honeek!" esanez. Eta eurek kendu arin orduan lorak paparretik!

55. Don Vicente Urkiza abadea umeei dotrina adibideak ipiniz irakasten (EGT-007/043)

Dotrina irakasten guztiz ona zen abadea, eta Julitak akorduan dauka sorginkeria edo sineskeriaren definizioarena (kartilako erantzunekoa), abadeak ipini zien adibide eta guzti. "Egite edo gauzaren batek goi kemenen bat daukala uste izatea da sineskeria edo sorginkeria". "Esaterako baten, atearen azpitik haizea doa, baina ez da ikusten. Eta han haratxoago dagoen orbela

mugitu egiten dela ikusten duzue, eta zuek sorginen batek mugitu duela pentsatzen duzue. Baina ez, hori sinestea da sineskeria edo sorginkeria. Hori fenomeno naturala izan da, orbela haizeak mugitu du.” Eta haren lez azaltzen zizkien beste gauza guztiak

56. Errigoitiko Gorputz Santuaren kondaira edo istorioa (EGT-008/002)

Julitaren aita esaten zuen bere aita kontatzen ziela, Errigoitiko parrokia eraikitzen hasi zirenean, zimentuak ateratzen hasi zirenean, han urten (irten) zuela osorik gorputz batek, eta esan zutela: “hau gorputzau santue da” eta aparte utzi zutela mahai baten gainean, alboan, harik eta “obrie” (eraikuntza lana) amaitu arte. Gero, “obrie” (eraikuntza lana) egiten egon zirenean, teilaturaino heldu zirenean eta teilatua egiten egon zirenean, aita bati joan zitzaiola bere semea esne apur bat edo, ur apur bat edo eramaten eguerdi inguruan. Eta teilatuan zegoela, mutiltxua handik behera jausi egin zela. Eta aita esan zuela: “Ene! Gorputz Santue, balidxo (balio) zakiguz (zakizkigu)!” Eta mutiltxuak behetik erantzun ziola: “Aitte, nire txapela hor dau(dago)?” Eta ha (hura, mutiltxua), handik teilatuko alturatik jausita, hala bizirik irtetzea mirakulutzat hartu zutela. Eta ordurik gora Gorputz Santue beti kontserbatzen dela elizan santutzat.

57. Errigoitiko Idibaltzagako Santa Maria parrokiaren kondaira (EGT-008/004)

Julitaren aitaren aurretikoek esaten zuten. Errigoitiko parrokia lehenengotaz Errigoitiko Urian hasi ei ziren egiten, eta Errigoitiko Urian egunez egiten zuten “obrie” (eraikuntza lana), gauez Elizaldeko mendiaren gainean agertzen zen. Hori gertatzen zen beti. Eta esan zuten:” Jagon ein bidu (egin behar dugu) gauez hau nok eran (nork eramaten duen) edo zer pasetan (gertatzen) dan (den)”. Eta han jagoten parau (jarri) zen bat gauez. Eta han jagoten zegoela, idiekin eramaten ei zuen obra hori (eraikuntza lan hori) baten batek. Eta idiekin joan zenak esan zuen: “Aida, idi baltza eta zuridxe, hor zelatetan dagoenari galdu dakidxola begidxe!” Eta han zelatan egon zenari begia galdu zitzaion. Bere aurretikoek hori esaten zutela kontatzen zuen Errigoitiko Urikoa zen Julitaren aita.

58. Etxeko txakurrak Julitaren birraittitte salbatu zueneko (EGT-008/006)

Julitaren amaren aittittek (Juan Antonio Arrienek) kontatzen ei zuen berari jazotakoa. Orduan ermandadako dirua tabernan ordaintzea ohitzen zen, nahiko berandutxoan egiten zen ordainketa. Eta egun baten ermandadako dirua ordaintzetik, goizeko ordu bietan edo, Larriña pareko estratzatik gora Zabalerara zetorrela jazo zitzaion. Etxeko txakurrak urtetan ei eutsan (irtetzen ei zion) beti bidera etxera berandutxo etortzen zenean, eta orduan ere urten ei eutsan (irten ei zion,) eta txakurrak, berarenganaino heldu, buztanari eragin eta “ja,ja,ja” egiten zion, eta gero txakurrak aurrera egin, osterara ere etorri eta berriro “ja,ja,ja” egin. Eta arbola baten ondora heldu zenean, txakurrak gora begiratu arbolara, buztanari eragin eta “ja,ja,ja” egin. “Baten bat dago hemen” pentsatu zuen. Begiratu ei zuen arbolara, eta gizon bat arbola gainean. “ Hemen itxaroten izan deustazu (didazu) niri!” esan zuen bere artean, eta aurrera zapa-zapa bera. Apur bat aurrerago egin zuenean, txakurra xaxatu (txakurrari hotsa egiteko agindu), eta txakurra brabo hasi zitzaion ahausika gizonorri, eta berak sua etxera handik gora gero! Bera harrapatzekorik ez ei zegoen handik gora gero! Derrepente (behingean/ berehala) heldu zen etxera. Txakurra han geratu zen oraindino ahausika. Bera

heldu eta gerotxoago baten heldu zitzaion txakurra etxera. Eta heldu zenean, orduan ogirik eta egoten ez zenez, talo bat azpiratik atera eta eman zion txakurrari. Pozik eman ere egin zion, txakurrak salbatu egin zuen eta.

59. Gosea ematen ei zioten. Ugazabari pernila jan arren, berak pekaturik ez zuela egin. (EGT-008/008)

Julitaren aitaren anaia zaharrenak, osaba Txominek (edo Domingok) morroi urten (irten) behar izan zuen, aita hargina izan zuten arren, soldata txikia ekartzen zuelako eta baserri txikitxoan hamaika neba-arreba izan zirelako. Osaba Txomin Katalinara (Errigoitiko auzoa) joan ei zen morroi. Han Katalinan gosea ematen ei zioten, eta pernila eukiten ei zuten gatzun-askan. Eta berak gosea!! Egun baten esan ei zuen ba ze: “ Ez horixe! Pernile jan barik ez naz paseko, ba!” Eta ugazaba Gernikara joan zen baten, atera gatzun-askatik pernila, eta banketa (jatordu itzela) egin ei zuen pernilarekin. Gero, ugazaba etorri zenean, pernilik ez, eta ugazabari zeozer esan behar! Katua euki ei zuten, eta katua apur bat lapurra ere izan ei zen, eta ugazabari pernila katuak jan zuela esatea pentsatu zuen, eta halaxe egin zuen: “Gaur hemen paseu dan lakorik! Honek katuek pernila ez deu (du) eroan, ba, gatzun-askatik!” Eta ugazabak: “Zelan ba?” Eta Txominek “ Ba, erdi zabalik edo eztakit zelan azerte (suertatu) dan gatzun-askie, eta honek eroan deu (du) eta akabeu (amaitu) deu (du) ta!” Gero ugazabak katua hil egin ei zuen, pernila eraman ziolako. Baina, ugazabari pernila jan arren, berak pekaturik ez zuela egin esaten zuen osaba Txominek, berak pasatzen zituen goseak itzelak izan zirela!

60. Tony Yturri senataria eta beste lau seme-alabaren aita izango zenaren abentura Ameriketara eta Ameriketara (EGT-008/009)

Osaba Txomin (edo Domingo) Katalinatik etxera etorri eta hurrengo Bilboko Begoña ondora joan zen morroi. Handik itsasontziak asmatzen zituen bozin hotsean. Eta Bilbora jaitsi zen egun baten itsasontzi haiek nora zihoazen galdetu, Ameriketara zihoazela eta Ameriketara hain egunetan zihoazela jakin, eta “Hementxe ein (egin) bidot (behar dut) zeozer, ba!” pentsatu ei zuen. Eta eguna heldu zenean, montatu itsasontzian, eta itsasontzian ostu egin ei zen. Itsasontziak urten (irten) zuenean (transitiboa), halako baten deskubritu ei zuten, eta zein den bera han egoteko arrazoiak galdetu zion kapitainak, eta berak esan ei zion, bere denboran morroi egonda, zelako goseak pasatzen izan dituen berak, eta bere ilusioa Ameriketara joatea izan dela, eta itsasontzian halako ilusioaz montatu dela. Kapitainak ontzat hartu ei zuen. Mutil espabiladu antza hartu ei zion eta, patata zuritzen eta, beharrean ipini ei zuen. Gero, bera majotxoa ere izan ei zen, eta kapitainak bere alabarekin konprometitzeko arloak ere ipini ei zizkion. Berak bere barruan esaten ei zuen: “ Ikuskostazu lurrera allegetan nazenien, zure alabie hor geratuko da!” Ameriketara heldu zirenean, berak salto egin ei zuen lurrera, eta adios! Gehiago kasurik ere ez, ez kapitainari ez itsasontziari! Han topatu ei zituen lagunak zertara konpondu, erdara edo euskara, topatu egin ei zituen. Laster adiskideak egin, eta mendirako arloak ipini zituen, eta mendian egon ei zen harik eta diru apur bat egin arte. Mendian diru apur bat egin zuenean, herrira jaitsi ei zen, eta herrira jaitsi zenean, ostatu bat ipini ei zuen. Han dirua polito egin ei zuen. Gero, han dirua polito egin zuenean, almazen bat ipini zuen, dena saltzen zuena. Dena saltzen ei zen han, “desde un kilo de azúcar hasta un avión” (azukre kilo batetik hegazkin batera) esaten ei zuen berak. Frontoi bat ere eraiki ei zuen, oraindino hantxe ei dago berak egindako frontoia!

61. “Zeu ikusiz gero, negarrak urtetan dost!” (EGT-008/011)

Julitaren amaren amak (gaztetatik alargundua) bere umeak erdara ikastea gura izaten ei zuen. Julitaren ama txikitan Gernikako kolegiara (mojetara) ibili ei zen bordetan ikasten, oinez egunero Errigoititik Gernikaraino. Gero, erdara ikasiaz, amak Bilborantz bota gura, eta neskame egon zen Bilbon, Zabalbide ondoko etxe baten. Berak San Antonen urak hartu, eta Zabalbidetik gora ur beroak baldan eramaten ei zituen, mantak garbitzeko edo. Neskame joan orduko, bere amak eman zion aholkua izan ei zen: Gero, Klauditxu, buruko orratz baltz bat behien (behean) topetan bazu (baduzu) be (ere) ugazabandrieri emon, gero! Harexena da eta, zurie (zurea) ez da eta! Ez, gero, inonik (inorenik) sekula ezer hartu! Buruko orratz baltz bat bada be (ere), haxe bera be (ere) emon eingo tsazu (eman egingo diozu)!” Ama joaten ei zitzaion noizik behin baten bisitetan eta , ama joaten zitzaionean, berak negarrari ematen ei zion. Eta amak esaten ei zion: “Klauditxu, ez zauz (zagoz) konforme, ala? Konforme ez bazauz (ez bazagoz/ez bazaude), etxera, gero! Eta berak erantzuten zion: “ Bai, ama, ni konforme nau (nago), baia (baina), zeu ikusiz gero, negarrak urtetan dost (irtetzen dit), negarrak!”

62. Jaungoikoak miraria astoa herrentzea eta astelehen haretan izekoa Gernikako plazara ezin joatea! (EGT-008/013)

Euren ama ez zen inoiz joaten Gernikako plazara, ama etxean beharrean egoten zen, eta euren izekoa izaten zen beti benedjarekin plazara joaten zena, eta astoarekin joan behar izaten zen orduan. Urte guztiko astelehen bat inoiz ez zuen plazara faltatu (huts egin) izekoak, eta astelehen haretan astoa kojorik (herren) azertau (suertatu), eta ezin joan Gernikara. Goizerik hasi ziren hegazkinak bueltaka eta bueltaka, eta eurek pentsetan: “Zer dabile (darabile), ba, abioiek (hegazkinek)!”. Eguerdi ostean hirunen hirunen hasi ziren hegazkinak etortzen. Eurek soloan zeuden, aita idiekin areatzen eta ama eta Bittoriano seme zaharrena frantsesa ebagiten. Hegazkinak igarotzen zitzaizkien ingurutik, lantzean metraila zarata bat, eta gerotxoago Gernika parajea zeozer botatzen hasi ziren, bonbak ziren. Auzoko Santi ere soloan beharrean zegoen, eta hegazkinak “grasa” botatzen dabiltzala eta hareetatik babestu egin behar zuela esaten zion Julitaren aitari, bertan hilko zituztela eta (“Berton hilko gozak!! Ez haz erretiretan, Antonioo??”), Julitaren aita arriskuaz konturatzen ez zen bitartean (“zera eingoskue horreek!” esaten zuen). Hegazkinak etortzen zirenean, auzoko Santi bere soloaren barrenean zegoen zuloan sartzen zen tutuz behera, eta ama eta Bittoriano seme zaharrena euren soloko goiko karkaban ostu. Julita eta Zabaleko umeak etxean, soloan zeuden idien askaren barruan sartu ziren, etxea bonbardeatuta ere, hura lekuri seguruen zelakoan. Astoa Kojotzea (herrentzea) Jaungoikoak egin zuen miraria izan zela dio Julitak (“Jangoikoak milagroa astoa kojotie”), osterantzean (bestela), astelehenero lez euren izekoa Gernikako plazara joan balitz, bertan hilko zutelako, ze, arratsaldeko seiak arte edo, ez zen Gernikatik etxera etortzen. Gero iluntzean dena sua! Dena argitasuna Maiagan aldetik! Goi guztiak gorrituta! Zer pasatu (gertatu) den, eta Gernika erretan (erretzen) dagoela!

63. Lapurrak eta Roman Baltz (EGT-008/015)

Antzinako denboran baserritarrek Bitoriara (Gasteizera) joaten ziren ganadua erosten eta horrelakoak egiten. Dirua eraman behar izaten zuten, eta lapurrek utetan (irtetzen) ei zuten (transitiboa) lantzean baten bidean. Bakoitzak ahal den lekuan ostuta eramaten ei zuen dirua, lapurrek kendu ez egiteko moduan

edo. Egun baten Errigoitiko uriko erdi tratante egiten zuen Roman Baltz eta lagun talde bat Gasteizera joan zirenean, lapurrek urten (irten) ei zieten (transitiboa). Botatzeko dauzkaten guztiak esan, eta kendu ei zizkieten zeuzkatenak. Baina Roman Baltzek ez ei zuen dirurik euki, errekestatu (miatu) ei zuten, eta ez ei zuen dirurik euki. Eta antzinako lapurrek batari kendu eta besteari eman ere egiten ei zuten, eta Roman Baltzek pentsatu ei zuen besteei kendu zieten berari eman egingo ziotela, eta “ea ba, emon oin (orain) niri!” esan ei zuen erdi negarrez, eta lapurrek, “tu, chapuceroo!” esanda, jo eta kapela bota ei zioten. Eta kapelako biribilaren barruan diruak gordeta eraman ei zituen, antzinako marabediak edo, eta, “txintxirrin, txintxirrin, txintxirrin!”, kapela behera jausi zenean, diruek zarata egin ei zuten. Eta kendu diruak, eta jipoi bat emanda utzi ei zuten lapurrek Roman hori.

64. Julitaren amaren aittitte idiak salduta etxera eta lapurrak bidean (EGT-008/016)

Julitaren amak eta, aitarik ez zeukatenez (ume-umetan hil zitzaizen aita), aittitte (hildako aitaren aita, Juan Antonio Arrien) izaten zen ganaduen salerosketak egiten zituena. Idiak salduta, idiekin joan ei zen Bermeora, eta idiak kobratuta etorri ei zen Bermeotik, Busturitik eta gero Metxikatik oinez etxera. Eta Busturin, azkenengo tabernan sartu zenean, berak esan Errigoitira zetorrela eta tabernakoak esan ei zion ea ausartzen zen sasoi (ordu) haretan Errigoitira joaten, han (tabernan) egon ziren sujeto biak (susmagarriak) bidean bere zain egongo zirela eta. Baina berak derrigor joan behar zuela erantzun zion tabernariari, etxean errana (erraina, Ambrosia) ume txikiekin bakarrik zegoelako eta edozer pentsatuta estu pareko (jarriko) zelako. Tabernatik urten (irten), eta esan eta egin, bidean sujeto (gizon) biak berari begira (bere zain). Berak ikusi zituenean, tabernara itzuli, eta tabernakoari esan zion baietz, aipatu zituen gizon biak berari begira (bere zain) zeudela bidean. Tabernakoak ez joateko aholkua errepikatu zion, baina berak joan beharra derrigorra zuela errepikatu eta buruan zeraman kapela kendu eta poltsikoan gorde, makila eperdi-izterraren parean goitik behera prakaren barrutik sartu, eta tapa-tapa-tapa egin zuen aurrera. Eta bideko gizonok berari begira. Erdaraz egiten ei zuten gizonok: “Este no es, porque no lleva ni sombrero ni bastón” esan zuten. Hori entzun zuenean, uleak (ileak) ere gora adi parau (jarri) zitzaizkion. Orduantxe aurreratxoago abiatuz gero, ez zutela harrapatuko pentsatu zuen. Pauso gero eta arinagoz, apur bat distantzian utzi zituenean, belozidadeari (abiadurari) eman, eta bera harrapatzekorik ez zen egon gero! Gehiago bera ez ei zuten ikusi!

65. Aita idi-probalari ibiltzea amari gustatu ez (EGT-008/018)

Zabaleko familiakoek deporte kontuak mundanotzat hartzen zituzten eta ez zitzaizkien horrenbeste gustatzen. Aitaren partekoak, Errigoitiko Uriko familiakoak, deportistagoak (kirolzaleagoak) eta liberalagoak ziren. Bai akordeoia eta bai deportea, idien probak eta horrelako gauzak gustatzen zitzaizkien. Julitaren aita, Errigoitiko Uritik Zabaleraz ezkondu zenean, bere kirolzaletasuna aldean eraman zuen. Eta Zabalen idiak egon zirelez, idiak prestatzen hasi zen probetarako. Julitaren amari eta, ez zitzaizen horrenbeste gustatzen. Julitaren amaren nebari (bat abadea, bestea fraidea izan zuen) ere ez zitzaizkion horrelakoak gustatzen, liberalegiak irizten zien. Baina ixilean baino ez bada ere, Julitaren aita, probetarako ametsan, idiak prestatzen egoten zen. Arto txaparrak topatu kamaran (ganbaran), handiak idietan gastatzea pena emanda, arto txapartxua topatu, eta haren lakoak lantzean

otzaratxu bat kamaratik (ganbaratik) jaitsi eta idiei ematen zien, idiek probetarako indarra euki zezaten. Orduan idi-probetan idiek neurritik eramaten zuten pisua, eta idiak neurritik pasatuz gero, karga hartu behar izaten zuen harriaren gainean. Jan ondo, eta idiek gehiegizko neurria har ez zezaten, ugelezko (uhalezko) zinta bat ipintzen zien idiei gerritik, gerriko baten moduan, gero ez zezaten kargarik hartu, eta horrela eukiten zituen Julitaren aita idiak kortan. Eta Julitaren amak, kortara joaten zenean: “Enei, gure gizonak dabilen (darabilen) patxadie, ididxe zelan dekozen (dauzkan)! Hori de (da) bizidxa (bizioa), hori be (ere)! Berorrentzat berorren gustoa!” eta horrelakoak esaten zituen.

66. Goi Herriak Behe Herriari irabazi zionekoa: aita bere anaia Leonekin idi-probetan lehenengo saria (EGT-008/019)

Proba ordua heldu zen. Julitaren aita idi onak zeuzkala jakiten zuten Errigoitiko Urian. Errigoitiko Uriko aldea izaten zen Behe Herria, eta Metxika aldea (Zabale eta barne) Goi Herria. Metxikarrek ere bazekiten Julitaren aitaren idiei buruz, eta Julitaren aitaren Goi Herriko idiek Behe Herrikoei gehiago egitea gura izaten zuten. Baina Beheko Herrikoek ere, eurek gehiago egitea gura zuten, non topatuko ote zuten Julitaren aitaren idiei gehiago egiteko idi-buztarri bat (bilatzen) ibili ziren, eta Gamizen edo, Mungian edo, topatu zituzten idi ontzat Zabalekoei gehiago egiteko idi baltzak. Aurreko egunetan idiekin ferratokira joan zenean, Julitaren aitari bere idiekin lehenengo saria irabaziko balu poztuko zirela eta halako faltsokeriak esan zizkieten beraiek topatu zituzten hari gehiago egiteko idi beltzak. Probara joan ziren eta Julitaren aitaren idiak itzelak ziren. Julitak ezagutu egin zituen. Bata izan zen zurizkina (zurizka) eta bestea gorritzina (gorritzka). Orduan untzea, oraingo moduan prestatua ez, ezpabe (ezpabere) kanpo librean izaten zen, eta aldats beheara egoten zen unekada baten, eta harri pikuak egoten ziren behean. Lehenengo aldatsa beheara, eta gero aldatsa gora! Julita proba ikusten egon zen, eta euren idiek aldats goran ipini apatxak aurrean, buztanak luzatu eta zelan tiratu! Eta jendea animatzen: “ia (ea) ba, hori dok eta!”. Julitaren aita eta Lion(Leon) anaia bien artean ibili ziren karreteru. Julitaren aita abarketa kordelak ere apurtu, eta ortozik! Eta jendeak esaten zuen: “ia ba, horreek ididxe badxakek indderra, baia atzetik be ididxe joazek, ididxe beste indder dekienak joazek atzetik hor!” Julitaren aitaren idiek irabazi zuten proba, eta bolanderak eta bota zizkieten Metxikarrek. Gero kaminotik gora bolandera hotsean etorri ziren etxera, “biba, biba Goi Herrixe!!” oihu eta bolandera artean. Behe Herriarren azpijokoa, euren idiei gehiago egingo zieten idien bila ibilita, hor geratu zen. Julitaren aita eta bere anaia lehenengo saria ekarri zuten. Julitak hamaika urte edo zeuzkan orduan. Eta hori baino lehenago Gernikan ere idi-probetan lehenengo saria irabazitakoak ziren, baina Julitak ez zuen ezagutu, txikitxa zelako. Saria bai, baina koparik eta ez zen egoten orduan.

67. Jan bako idiek indarrik ez (EGT-008/021)

Errigoitiko Uriko osaba Lione (Leonek, Julitaren aitaren anaia) ere idiak eukiten zituen. Baina hareek etxe txikitxa eta, pentsua erosi barik, etxeko artoagaz idiak, baina artoa eurek jateko behar izaten zuten hareek ere, eta arto gutxi! San Bartolomeetan (Errigoitiko Uriko jaietan) idi-probak Urian eta, Julita eta han gonbidadu zeudela, “zer, eroango doguz ala ez?” esan zioten anaiek elkarri. Eta aittite Felixek (anaien aita) semei: “Bai, horreek ididxe eroango (eramango) dozue (dituzue)! Horreek (idiei buruz) ule (ile) zaharra baino ez de (daukate)! Horreek (idiei buruz) zer eingo de (deula) (egingo dutela) pentsetan (duzue)! Honek (semei buruz) zelako amesetak

(ametsak) dekiez (dauzkate)! Zer pentsetan deue (dabe/dute) honeek (semei buruz)!" Hala eta guztiz, osaba Lioneke bere idiek zeozer egingo zutela uste zuen, ze idiak finak eta tiratzen zekitenak ziren, baina indarrik ez, janbakoarena. Azkenean anaia biek idiak eramatea erabaki, eta aittitte Felixek semeei:"Gizonak (semei buruz) er(o)an be eittie horreek!(idiei buruz)! Gizonak er(o)an be eittie horreek!" Horreek ididzek (idiak) indarrik (indarrik) ez dekenak (ez daukatenak)! Jan bako ididzek plazara eroan be eittie, eroan be eittie!" Eta auzoko andre batek: "Ikusten zu (duzu) Felix Antzua (Antzuene bere baserriaren izena) zelan dauen (dagoen)? Baia (baina) deskido (deskuido) baten ididzek zeozer eitten badeue, horren erronkak ez dire(dira) ixengo (izango) makalak, ba!" Baina jan bakoak ez dauka indarrik eta idiek gutxi egin zuten. Semeei ixil-ixilik egon behar gero! Idi-proba izan zen tartean kale bitartean egon zen probari begira aittitte Felix. Berak egiten zien zegoen lekutik idiei indar, "Eingo balekie!" pentsatzen zuen bitartean. Baina idiek, aittitte Felixek berak iragarritako moduan, ez zuten ezer egin. Finak bai, baina indarrik ez. "Ule zaharra baino ez dekie, eta ule zaharra baino ez dekon ganadue eroan plazara!" jarraitu zuen esaten gero aittitte Felixek.

68. Guda Zibila baserriraino heldu (EGT-008/023)

Apirilaren 26an Gernika bonbardeatu ostean hasi ziren soldaduak etortzen Gernikatik. Nazionalistek (gudariak) eta gorriak, errepublikaren partekoek, Gernika gainean, Maiaga mendian egin zuten frontea, eta nazionalak (Francoren partekoek), hurrengo mendian (Gainadan dio Julitak). Zortzi egunetan egon ziren frontearen ondoan eurek. Etxetik irten behar zutela esaten zieten, baina eurek, gauza guztiak etxean utzita, irtetzeko gogorik ez! Osaba fraidea euki zuten orduan etxean, komentutik etorrita. Beldurrez, fraideak komentutik etxera bota zituzten. Eta osaba fraideak esan zuen etxean denak egoteaz ez zutela ondo egiten, ze etxea bonbardeatuz gero, denak bertan hilko zirela, eta baten batzuk bizirik irtetzeko hobe baten batzuk errefugiora joatea. Julita eta euren izekoa joan ziren goizean Uriko kobara pitxer bete esne hartuta. Koban zeudela etorri zitzairen gizon bat, Errigoitiko seme bat, abisu bat ematen, arratsaldeko bostetatik aurrera koban dagoena afusilatu egingo dutela. Eta kobatik irten egin behar! Euren pitxertxu esnea bota behera, eta badatoz Julita eta izekoa bidean gora, Mataldetik eta basoetatik gora etxera, eta dzii, dzii, dzii, eta dzii!! Dana balie (bala)!! Hankie (hanka) ipini behar duten lekuan ere, ra!! Balie (bala) sartzen zitzairen!! Eta batek ere aparau ez eurek! Etxera heldu zirenean,... zelan heldu ziren! Euren izekoa ohearen gainean jausi zen zorabiatuta edo larrituta!

69. Milizianoek etxetik irtetzeko esan eta esan, eta Saseta batailoiko gudariak etxetik ez irtetzeko gomendioa eman (EGT-008/024)

Milizianoek, asturianoek (asturiarrek) eta, etxetik irtetzeko esaten zieten, baina eurek gogorik ez. "Bai, urten bidu (irten behar dugu), urten bidu, bidxer (bihar) urtengu (urtengo dugu)!" esanez ibiltzen ziren luzamenduetan. Baina hurrengo egunean berriro nagiak irtetzeko, ze ez zuten etxetik irten gura. Dena (a)metraila, dena hegazkina, dena soldadua hara eta hona! Asturiarrak eta Santandertarrak soldadu gogorak ziren, milizianoak esaten zitzairen, milizianoak izaten ziren. Eta haiek etxetik irtetzeko esan eta esan ostean, Saseta batailoiko gudariak etorri zitzaizkien haiei jaramonik ez egiteko eta etxean geratzeko gomendioa emanez, etxetik urten daben (irten duten, transitiboa) guztiak ez zebiltzalako ondo. Eurek etxetik irtetzeko gogorik ez, baina etxean geratuz gero, nazionalak (Francoren partekoek) txarto tratatuko zituzten eta hilko zituzten beldur ziren, eta halaxe adierazi zien gudariei. Baina

gudarietako batek, etxean geratuta, nazionalek (Francoren partekoek) ez zituztela txarto tratatuko esan zien, eta bera gudan zehar nazionalen bandotik hemengo nazionalisten bandora igarotakoa zela azaldu zien gudariak, hemengo nazionalistek gerra irabaziko zutela pentsatuta egin zuela bando aldaketa. Etxean geratuz gero, ez zituztela txarto tratatuko esan zien gudariak, eta euren gudari batailoia une hartan Boliñan (Errigoitiko auzoa) zegoela. Gero miliziano asturiar eta santandertarrak berriro etxetik irtetzeko esanez etorri zitzaizkienean, gudarien gomendioaz animoa hartuta zegoenez, “¡Nosotros pensaremos cuando evacuar!” erantzun zien Julitaren aitak, eta milizianoek, ez konforme baina, baketan utzi zuten. Eta amak esan zuen: “Hori esan be (ere) eittie (egitea) gizonak, hori esan be eittie! Edozer eitteko (egiteko) be (ere), hori esan be eittie!”

70. Saseta batailoiko 7 gudari baserrian afaritan eta lotan, eta Bilbora ihesean osaba Bitturio fraidea eurekin eraman (EGT-008/025)

Egun hartan euren baserrian gauez lo eurek geratuko zirela esan zieten gudariak. 7 gudari edo geratu ziren gauez. Euren izekoak ipini zizkien oheak eta afaria. Tartera zabal bi pernilez bete-beterik ipini zituen. Haiek jan! (gudariei buruz). Tenedorkada bakoitzean pernil zati bi jaten zituzten! Eurek (Julitak eta etxekoek) jateko gogorik ere ez! Zortzi egunetan kontuxu jan barik egoten ziren eurek! Jatekoa bai, euren izekoak oiloa hil, eta oiloa eta oiloa ipintzen beti, salda garbia esaten zaiona beti. Baina eurek jateko gogorik ez! Eta haiek (gudariak) jan zuten afaria! Gauez inork atea joz gero, eurek badaezpada fusilarekin ate ostean jarri, eta atea ireki beharko zuela esan zioten Julitaren aitari. Eta esan eta egin, gau erdian atea jo. Aitak atea jo zutela esan, eta gudariak, fusilarekin ate ostean jarrita, atea lasai irekitzeko esan zioten. Atea jo zutenek pertsona baten izena esan zuten, ea han zegoen galdetuz. Gudariak ahotsean ezagutu zituzten euren lagunak. Nazionalek (Francoren partekoek) Sollubeko frontea apurtu zutela eta ihes egin behar zutela esaten zetozen. Etxeko osaba fraidea (Bitturio) baserrian arriskuan zegoela eta eurekin eramango zutela esan zuten. Eta eurekin eraman zuten. Igetargi (iretargi/ilargi) bako gaua izan zen, gau iluna, eta estratzatik behera eraman zuten Boliñara (Errigoitiko auzoa), dandarrez harririk harri. Gero osabeak esaten ei zuen halako gaurik inoiz ez duela pasatu, nondik doan ere ez, buelta-bueltaka kaminoraino eraman zutela. Eta gero Algortako komentura eraman ei zuten.

71. Julitak Sakamantekasen antzekoengandik ihes egin zuenekoa (EGT-009/001)

Hamalau-hamabost urte zeuzkanean, baserritik Errigoitiko beheko parroikiko beranduko mezatara (goizeko hamaiketakora) kaminoan zihoala, Julitari kotxe bat geratu zitzaion ra! ondoan, eta bi edo hiru morroi agertu zitzaizkion barreka haginak erakusten. Plan txarrean iritzi zien aurpegian. Odolak ere gora egin zion Julitari. Susmo txarra hartu zien. Sasoi haretan ibili zen zarata Sakamantekasek ez dakit nor harrapatu duela, odolak kendu dizkiola... Eta berari gizon hareek halakoxeren batzuk zirela iruditu zitzaion. Eta zer egin zuen berak? Da! Kotxeko atea irekitzen hasi zirenean, bidezidorrera ra! salto egin eta handik behera (arrapaladan arin egin). Bera harrapatuko zuenik ez zegoen, atzetik etorri balira ere. Erreka ondotik Errigoitiko Urira igo zuen. Erreka ondotik Errigoitiko Urira zihoala, kotxeak gerotxoago arrankatu zuela entzun zuen.

72. Julitaren ama gaztetxotan Bilbon neskame bere amak emandako aholkuekin (EGT-009/003)

Erdara ikastearren, Ambrosiak (Julitaren amamak), bere alaba zaharrena, Klaudia (Julitaren ama) Bilbora bota zuen neskame. Han, Zabalbide ondoan neskame zegoela, ez dakit zertzuk garbitzeko, mantak garbitzeko edo, Zabalbidetik gora ur gorria eramaten ibiltzen zen Klaudia. Ambrosia ama noizik behin baten bisitan joaten zitzaionean, Klaudia alabak negar egiten zuen. Orduan amak ea pozik ez zegoen galdetzen zion Klauditxuri, eta deskontentu egonez gero, beragaz etxera itzultzeko esan. Eta Klauditxuk "Ez, ama, ni pozik nago, baina zeu ikusi eta negarrak urtetan dost"erantzuten zion amari. Amak aholku bat emanda utzi zuen alaba Bilbon neskame: "Buruko orratz baltz bat topetan bazu be (topatzen baduzu ere), ugazabari emon (eman), berana (berea) da eta. Ez inorenik hartu, buruko orratz baltz bat ere ez, gero!".

73. Izeko Eustakiak erdara ulertu ez (EGT-009/005)

Ambrosia amak Eustakia alaba gazteena Bilboko "Servicio Domestico"ra bota zuen erdara ikasteko eta. "Servicio Domestico"n txerriak eta eukiten ei zituzten, eta behin, txerriari botika eman behar, eta, txerriari ahotik botika emateko, txerriari eutsi egin behar, eta eurek txerriari eusteko taiurik ez. Orduan "Vayais inútiles!" esan zien mojak. Baina "inútiles" hitzak zer esan gura duen jakin ez eurek! Eta gero berba hareekin mojak esan ziena azaldu zioten Eustakiari: Gauzeztanok kentzeko hemendik esan gura duela, ez dutela ezertarako balio eta.

74. Pedernales eta Perdonales (EGT-009/006)

Ambrosiaren bigarren alaba, Juanita, neskame zerbitzen zegoen etxeko ugazabak Pedernalesen zegoela esaten deitu ei zuen telefonoz etxera. Eta gero, ugazabagaitik galdetzen etorri zenari Juanitak ugazaba Perdonalesen zegoela esan zion. Laster zuzendu zioten baina, hainbeste barre eragin zuena eta eragin duena. "Euren eskolie zelakoa izango zan!" (esaten zuten eta esaten dute, erdara eta erdarazkorik ere jakin ez eta).

75. Julita Errigoitiko eskolan (EGT-009/008)

Doñe Mari Carmen Torres maestrearen eskolan zegoen orduan Julita. "Castro"; ezizenaz esaten zioten irakasle honi, Castrokoa zelako. Eurek gura zuten gaiari buruz erredakzio bat egiteko eskatu zien, eta Julitak "Los dos amigos"; eskolako irakurgaiari buruz egitea pentsatu zuen, hartza (Julitak "otsoa"; dio) datorrenean, lagunetako batek arbolara igotea lortu eta bestea, ezinean, arbola azpian arrisku bizian geratzen denekoa kontatzen duena, otsoak edo hartzak, usain-usain egin ostean, arbolapeko lagun hori, hilda dagoelakoan, bakean uzten duenekoa. Ipuinaren amaierako irakatsiko hitzak ederto gogoratzen ditu Julitak : "Hola, amigo. ¿Qué te ha dicho el oso al oírte? Me ha dicho que el amigo que le abandona a su amigo en una hora es un cobarde." Julitak, idazlana egiteko, lagun bien irudia eta, marrazten ziharduen, eta, bere gustura barik, motz (itsusi) irtetzen zitzaion ("motz urtetan eustan" dio Julitak, "urten"; aditza transitiboa da). Eta borratu eta borratu, borratu behararren borratu beharraz koadernoan apurtu zuen. Enee! Koadernoan apurtu zuenean, lurrera jausita parau zen Julita, koloreak ere pasatuta, non dagoen ere ez dakiela. Eta maestreak igarri, eta koadernoan eskatu. Eneee! Eta berak koadernoan apurtuta! Eta berak koadernoan erakutsi gura ez! Berak koadernoan erakustea baino edozer gurago! Burua mahai gainean, aurpegia esku bien artean

estalita egon zen, hantxe geldi! Irakasleak, barreka, baketan utzi zuen azkenean. “Orduan eroan noan lotsaridxe eta disgustoa, disgustoa izan zan, gero!” dio Julitak.

76. Alejo eta bere egurrezko bizikletie (EGT-009/010)

Euren auzoan Alejo izeneko gizon txikitxo bat bizi zen, eskulanetan trebea eta zalea. Baten egurrezko bizikleta egin zuen. Lepoan eramaten zuen bizikleta kaminoraino, gero han bere ibilbidea egiteko. Aldatsean gorantz hankekin egiten zuen eta beherantz hankak bizikleta gainean ipinita joaten zen. Baina baten, bizikleta honekin gorantz zihoala, atzetik orpoa zapaltzen ei zion baten bat agertu, betetu egin ei zuen gizon horrek, eta ra! lotu ei zen eta “Kojones, zer bizu (behar duzu) edo nor bizu (behar duzu). Esan, gero, zer bizun (behar duzun)!” esan ei zion gizon horri, eta ikaratu egin ei zuen gizonori, eta atzeratu egin ei zen. Beste baten, Alejo Bitoriara (Gasteizera) joan zen bere egurrezko bizikletarekin, eta han kaleren baten argazkilari batek argazki bat atera, eta gero bere dendako erakusleihoan jarri zuen Gasteizen bertan, eta Gasteizen bertan abade izateko ikasten ari zen Julitaren osaba harrituta geratu zen Alejo auzokoa bere egurrezko bizikletarekin erretratatuta Gasteizko erakusleiho hartan ikusi zuenean: “Ene, hamen (hemen), gure auzoko Alejo non dagoen fotografidxeute!” esan zuen.

77. Alejo baserriko teilatua konpontzen eskilara eta guzti jausi (EGT-009/012)

Haize Itzela izan zen orduan. Haizeak pinudiak eta bota zituen, Alejori ere bai. Berak izango zuen bakarrik orduan pinudia paraje hartan. Baina haizeak baserriko teilatua ere bota zion Alejori, eta eskilara luzea hartuta, teilatu hori behetik konpontzen zebilela, eskilarak laban egin, eskilara eta guzti jausi, eta bizkarrezurra apurtu zuen Alejok. Lehenengo klinikara eraman ei zuten. Penekin aieneka joan ei zen. Klinika ordaindu egin behar izaten zen, eta gero ospitalera eraman zuten. Ospitalean pozik zegoen, han behintzat argia pizteko era zeukalako. Baina hil egin zen.

78. Lapurrak bakardadeko etxeetan (EGT-009/013)

Amama Ambrosia Laukarizen jaiotakoa zen, hango Agarre baserrikoa. Eta, Ambrosiaren ahizpa bat edo, Berriagako mendiaren barrenean bizi zen, eta hango etxeetara lapurrak askotan joaten ziren. Bakardadean zeuden etxeak ziren eta gauza dagoen etxeak, dirudunenak. Txakur ona eukiten ei zuten, eta txakurra ahausika hasten zenean, “Hemen datoz oin be (orain ere) batan batzuk” esan, eta atea ixten arin joaten ei ziren.

79. Etxera sartzeko, lapurrek etxeko morroia harrapatu zutenekoa (EGT-009/015)

Fernando morroi euki ei zuten etxean aurreragoan, eta lapurrek Fernando harrapatu ei zuten, Fernandok atea jo eta Fernando dela esanda, ugazabari atea ireki eragiteko. Eta Fernandok atea jo ei zuen, eta “Pernantxu naz baie (baina)” esan ei zuen, eta “baie”k (baina-k) zeozer (zerbait) esan gura duela eta, aterik ez zioten ireki. Gero Pernantxuri eman-eman egin ei zioten lapurrek. Pernantxuk “baie” (baina) horren bidez ugazabari ikusten eman gura izan zion atzetik “jendea” datorrela.

80. Etxeko salako tranpatik lapurrengandik ihes (EGT-009/016)

Beste baten ere txakurrak ahausika, baina lapurrak ra! sartu ei zitzaizkien iluntzean etxera. Lapurrok etxeko andrea sutondoan sua piztuta zerbait egiten harrapatu zuten. Honek semea kortatik ekarri behar zuela esan zien, hau ikaratu egingo zelako, eta kortara joanda, semearekin batera zegoen senarrari esan zion lapurrak etxera sartu zirela. Senarrak goiko salara igo zuen, eta begiratu ei zuen leihotik, eta leiho bakoitzean lapur bat jagoten bera!. Ihes egitekotan, salako tranpatik behera ihes egin behar zuela pentsatu, eta haren gainean zeuden artoak banan-banan ixil-ixilik kendu, eta tranpa ireki zuen. Atartean gurdia zeukan, eta atartean mantxua ikusi ei zuen bera jagoten. Ihes egitekotan, harengandik lortuko zuela ihes egitea pentsatu, tranpatik salto egin eta gurdipetik mantxuarengandik ihes egitea lortu zuen, honek bera harrapatzeko ahaleginak egin zituen arren. Orduan, beste jagote lekuetan zeuden lagunei ugazabak ihes egin zuela esan zien mantxuak. Lapurrak estutu egin ei ziren, eta ihes egin zuten.

81. Dirua kaxaren hanka azpian eta lapurrek ikusi ez (EGT-009/017)

Beste baten ere txakurrak ahausika eta lapurrak ra! sartu ei zitzaizkien etxera. Etxeko guztiak lotu, ama zaharra, amama zaharra, modu bakoa zelako, aske baina gela baten sartuta utzi, eta dirua emateko eskatu zieten lapurrok. Eurek dirurik ez zeukatela, poltsikoan zeukaten lau erreal baino ez zeukatela eta hareek emango zizkietela esan zieten. Baina zaldiak salduta hartutako dirua kaxa baten hanka baten azpian ezkutuan gordeta zeukaten, kaxa hori pisu handikoa zela. Lapurrek pernila gatzun-askatik atera, ederto jan, kanturreoak egin eta gura zutena egin zuten etxean. Eta gero joan egin ziren. Ama zaharrak askatu amarreatatik, eta dana hankaz gora ikusi zuten, kaxako mihiseria guztia, izarak eta, batzuk etxe aurrean eta bidean botata eta zabaldua, eta beste batzuk eramanda. Baina dirua hanka azpian zeukan kaxari ikuturik ez, eta hantxe zegoen dirua, lehengo lekuan.

82. Gernikako bonbardaketa Errigoitiko baserritik ikusita (EGT-009/019)

Julitak hamabi urte zeuzkan orduan. Bere izekoa (Juanita, eurekin bizi zena) astelehenetan beti plazara joaten zen, inoiz faltatu ere ez, baina astelehen horretan astoa kojorik (herren), astoa euki ezean ezin joan, eta ez zen joan. Zarata arraroak hasi ziren goizean, eta lantzean hegazkin bat etortzen zen. Gero arratsaldean hegazkinak hirunen hirunen hasi ziren etortzen, zerbait botatzen zuteneko zarata egiten zuten. Eta enee! Hegazkinak bonbardeatzen hasi direla! Bittoriano neba zaharrena amarekin frantsesa ebagiten zegoen soloan, eta aita idiekin areatzen frantsesa ebagitakoa. Olgetan ibili ziren umeak (Julita euren artean), arriskua ikusita, soloan zeuden idien askan sartu ziren. Bittoriano neba eta ama, hegazkinak etortzen zirenean, karkaban ostuten ziren. Soloan lanean zegoen auzoko Santi ere, eta euren aitari (Antoniori) hegazkinetatik babesteko esaten zion, "grasa" botatzen dabiltzala eta. Baina Santi urak egindako zulo baten tutuz behera ezkututzen zen bitartean, euren aita hegazkinei begira fumetan (zigarroa erretzen), hareek eurei ezer egingo ez zietelakoan: "zera egingoskue horreek guri!" Gero Gernika sutan zegoela ikusi zuten. Su gorria dana. Eta Gernikan bizi ziren auzoko batzuen senideak euren auzoan agertu ziren laster.

83. Guda zibilean “zer ete dan eta nor ete dan” baserrian bala artean (EGT-009/021)

Kalamua, Kanpazar eta Elgetako fronteak apurtuta eta Gernika bonbardatuta, kamioikada soldaduak Gernikarantz etorri ziren frontea egiten (Francoren militarren aurka). Zer ote den eta nor ote den, zer izan behar ote duen, nor izan behar ote duen egon ziren eurek baserrian. Balak hasi ziren, lantzean bala batzuk etortzen ziren, eta ez irteteko etxetik, gerra hasi dela eta. Egun baten iluntzean Julita eta bere izekoa, zestoa (otzara) hartuta, konejuentzako (untxientzako) sekulabelarretan joan, eta balak tik eta tak, tik eta tak, sartzen ziren behean (euren bidean), baina eurek ez zituzten aparau. Zestoaz (otzareaz) euren burua babestuz etorri ziren etxera. “Eneee! Ezin lei joan, gero! Dana dator balie eta!”

84. “Etxea bonbardeuko dabe eta danok hilko gara berton” (EGT-009/023)

Etxean zeukaten osaba Bitturio fraidea ikaratu egin zen: “Etxea bonbardeuko dabe (dute) eta danok hilko gara berton, batan batzuk hoba (hobe) urten (irten) bizitzeko”. Bitartean etxe barrenetik, Bolina aldean hegazkinak ibiltzen ziren egunero tarratada hotsean, beti (a)metrailatzen. Hegal guztiak (a)metrailatu zituzten. Hegazkinek motoristak (a)metrailatu gura zituzten. Motoristak kaminoko kantailen barruan ostuten ziren. Hala zeudela, osaba fraideari jaramon eginez, Julita eta bere izekoa Errigoitiko Uriko kobara joan ziren goizean goizeti babesaren bila pitxer bete esne hartuta. Han koba bete jende zegoen, Antzueneko izekoa ere hantxe zegoen. Errekan datorren ura edaten zuten, kutsatuta egongo zena.

85. Koban geratuz gero, afusilatu egingo dituztela (EGT-009/025)

Errigoitiko Uriko koban babestuta koba bete jende zegoela, Bittoriano Olabarriko etorri zen, han ezin direla arratsaldeko bostetatik aurrera geratu esanez, zertara edo hartara irten egin behar dutela, bostetatik aurrera geratuz gero, fusilatu egingo dituztela. Eta denek handik irten behar, Antzueneko izekoa (hau ere Juanita izenekoa), osaba Lionen (bere senarraren) akordeoia lepoan zuela. Eta Julita eta bere izekoa etxera zetoze, bidean dana balak, da, da, da!, baina eurek aparatzerik ez! Burua makurtuta, arin aurrera! Sartu ziren etxera, eta bere izekoak, arnasa ere falta zuela: “Jesus! Zelan aparau ez gaituezan!!” Gero, etxe barruan egon ziren. Hegazkinek etxe inguruan metrailatu zituzten hegal guztiak, baina, zorionez, etxeei ez zieten ezer egin.

86. Gudariak Zabaleko baserrian afaritan eta lotan (EGT-009/026)

Milizianoak baserritik irteteko eta ebakutzeko esaten etortzen zitzaizkien, eta auzoko batzuk, Alberto eta, baserritik irten ziren, ganaduak eta dena eraman zuten, Gordejuelara. Baina eurei gudariak etxetik ez irteteko aholkua eman zieten, etxetik irten direnak txarto ikusi dituztela, eta etxean geratuz gero ez dietela ezer egingo. Gauetz gudariak afaritan eta lotan geratu ziren euren baserrian, atea joko zuten lagunen zain. Julitaren izekoak oheak eta afaria ipini zizkien, eta tenedorkada bakoitzean pernil zati bi eta taloa jaten zuten. Gero, ohean zeudela, esan eta egin, atea jo. Aitak atea idegi, eta ate ostean badaezpada fusilarekin zegoen gudariaren gudari lagunak ziren, Sollube sutan zegoela eta arin egin behar zutela esanez. Ihesean eurekin eraman zuten baserrian zeukaten osaba Bitturio fraidea Algortara (Trinitarioen konbentua han), baserrian arriskuan zegoela eta. Estropezuka, haririk harri, ilargirik bako

gauean eraman zuten. Algortan bertan ez, baina handik hurrean utzi ei zuten osaba Bitturio fraidea.

87. Bala artean Kanu txakurra bere habian geldi-geldi (EGT-009/028)

Koltxoia leihoetan ipinita eukiten zuten leihotik balarik sar ez zedin. Kanu txakurak lehenengoan egin zituen ahausiak, pi! pi!, edo holako batzuk, balak hurreratzen zitzaizkionean, baina gero, bere habian ixilik, ahausirik ere ez, geldi-geldi. Julita ondo akordetan da Kanu txakurraz. "Ni ointxe be (oraintxe ere) akordetan naz ahausika bera" dio.

88. Soldaduak ihesean eta auzokoak seme gudaria etxean gordeta (EGT-009/030)

Goiko Tiadora (Teodora) eurenean zegoen une hartan. Bere gizona Santi eta Julitaren aita goizean goizetik Biontzolara joan ziren, eurei etxetik irteteko esanez gero, han lekua ote zeukaten jakiteko. Bitartean, euren izekoari arraroak iruditzen zitzaizkion goiz hartako lehenengo isiltasuna eta hurrengo soldaduen mobimendu arraroak, soldaduak okertu eta erratuta mobitzen zirela iruditu zitzaion. Eta gero, haor (hara hor)! Soldaduak euren etxe ondotik arrapaladan ihesean ikusten hasi ziren, gero eta soldadu gehiago arrapaladan ihesean, Bilbora nondik joaten den galdezka. Eta auzoko Alejok, tejabanan jarrita, soldaduei Bilbora nondik joaten den esaten zien. Alejo larri eta estu zegoen soldaduak bere etxera sar ez zitezen, gerran gudari-soldadu ibilitako semea, hil dalakoan, bere etxean zulo baten gordeta zeukalako.

89. Hamaika neba-arreba eta baserri txikia (EGT-010/001)

Julitaren aita Errigoitiko Urikoa izan zen. Hamaika neba-arreba izan ziren. Aita hargina euki zuten, etxetik kanpo egiten zuen behar harriak labretan, eta andrea bakarrik etxean lanean, baserri txikian. Hamaika neba-arreba hazteko diru asko behar, eta neba-arreba zaharrenak gazte-gaztetatik neskame eta morroi joan ziren. Leonarda eta Magdalena Bilbora neskame. Magdalena gero irakasle egin zen "Artes y Oficios"en. Eta Domingo morroi joan zen Errigoitiko Katalina auzora.

90. Gosea, pernila eta katua (EGT-010/002)

Domingo morroi zegoen baserrian ugazabak pernila gatzun-askan eukiten zuen, eta eurei eman ez. "Nik hori nozonoj jangot ba, nik jango dot hori egunen baten ba, zuek sobran daukazue hori eta!" bere buruari esaten ibiltzen zen Domingo. Ugazaba Gernikara joan zen baten, pernila gatzun-askatik atera, sartenean egin, eta jan egin zuen Domingok. Baserrian katu bat euki ei zuten, eta "pernila katuak jan dauala sinestuta iminiko dot ugazaba" pentsatu zuen Domingok, eta halantxe egin zuen. Ugazabari Gernikatik etorri zenean esan zion: "Hemen ez dakizue zer paseu dan gaur! Horrek katuek pernila atrapau gatzun-askatik eta jan dauz danak!", eta sinistuta geratu ei zen ugazaba.

91. Osaba Domingoren abentura Ameriketara eta Ameriketan (EGT-010/004)

Domingo Begoñako baserri baten egon zen hurrengoan morroi. Han soloan beharrean ebilela itsasontziak ikusten ei zituen Bilbora etortzen. Nora joango ote ziren galdetzen zion bere buruari. Portura joanda, batzuk Ameriketara joaten zirela jakin zuen, eta Ameriketara zeintzuk eta noz doazen jakin eta halako baten Ameriketara zihoan itsasontzi baten ostu zen. Itsasoratu

zirenean, deskubritu egin zuten, eta zergatik egin zuen hori galdetu zioten. Etxean hainbeste neba-arreba izan direla eta berak nonbaitera irten behar izan duela azaldu zien. Kapitainak ondo hartu ei zuen Domingo, mutil espabilatutzat hartu eta patatak zuritzen ipini zuen. Domingo guztiz pozik zegoen lan egiteko. Kapitainari gustatu egin ei zitzaizkion bere egikuneak eta bere izakunea, eta bere alabarentzat be gura zuen. Bera morrosko majoa ei zen. Baina Domingok bere artean pentsatzen zuen: "Lurre atrapetan dotenien, zure alabie hor geratuko da!". Eta halantxe egin zuen, itsasontzia Ameriketara heldu eta Domingok lurra harrapatu zuenean, ihes egin zuen. Eta laster aurkitu zuen nortzuekin eta, euskaraz edo erdaraz, zertara ulertu. Lehenengo mendian artzain egon zen, eta han dirua egin zuenean, herrira jaitsi eta herrian ostatua jarri zuen, jateko eta lo egiteko ostatua. Errigoitira eta egiten zituen bidaiak, eta andre euskaldunarekin ezkondu zen (Maria Elorriaga Zavala. Julitak Sopelakoa zela dio, baina Laukizen jaiotakoa zen). Lau seme-alaba euki zituen berarekin: Juanita, Lolita, Luis eta Tony (Tony Yturri, Ameriketako senatari izan zena). Maria andrea gaixoz gaztetan hil zitzaion Domingori eta bigarren ezkondu zen, Ameriketara nebarekin zegoen andre euskaldunarekin (Justa Bilbao Arronategi. Julitak Forukoa zela dio, baina Muruetan jaiotakoa zen), eta bigarren andrearekin alaba bat izan zuen Domingok: Irene.

92. Osaba Domingok anaia bi eta lau arreba eraman Errigoititik Ameriketara (EGT-011/001)

Osaba Domingok anaia bi eta lau arreba eraman zituen gazte-gaztetatik Errigoititik Ameriketara. Anaiak: Antonio (Julitaren aita) eta Gregorio, Gazte ezizenez esaten ziotena. Eta arrebak: Fermina, Gabriela, Eustakia eta Liboria. Liboria gaztetan hil zen Ameriketara bertan, ezkongabe, gaixorik zegoen eta moja joan gura izan ei zuen. Beste arreba guztiak euskaldunekin ezkondu ziren Ameriketara bertan.

93. Aita Delamarreko urre meatzeetan lanean eta Domingo anaiaren ostatuan apopilo (EGT-012/002)

Antonio (Julitaren aita) Ameriketara lehenengo mendian egon zen lanean, artzain, baina gero Delamarreko urre meatzeetan lan egiteko jaitsi zen menditik, eta orduan Domingo anaiaren ostatuan egon zen jan eta lo egiten. Urre meatzeetan zaldien laguntzaz ateratzen zuten urrea bagoietan. Antoniok zaldiek eurek baino indar gehiago egiten zuen, askotan zaldiek atera ezin eta berak egiten zuen bagoia ateratzeko besteko indarra. Meatzetik irtetean "errekistoa" (miaketa) edukitzen zuten, inork urre pepitarik gorde ez zezan.

94. Aita eta oherakoan errezuak egiten zituen lekeitiarra (EGT-012/003)

Antioniorekin (Julitaren aitarekin) batera lekeitiar bat egon zen Delamarreko urre meatzeetan lanean eta Domingoren ostatuan apopilo. Lekeitiarra diru barik ibiltzen zen, irabazten zuen guztia gastatzen zuelako, eta Antoniori 6.000 errealekin mailegua eskatu zion. 6.000 errealekin orduan diru asko zen. Lekeitiarrak, ohera joatean, aitaren eta errezu asko egiten zuenez, Antoniok 6.000 errealekin eman zizkion, gero itzuliko zizkielakoan, baina ez zion diru itzuli.

95. 6.000 errealekin zain (EGT-012/004)

Julitaren aita Ameriketara 7 urte eginda itzuli zen Errigoitira eta Zabaleko baserrira ezkondu zen Julitaren amarekin (Zabaleko Klaudia Arrien Garai). Errigoitin zahartzaroan ere aitak oraindino buruan zituen lekeitiarrak zor

zizkion 6.000 errealak, eta behin Errigoitiko medikuak, Don Mariok, Gernikan
amerikanu batek beragatik galdetu zuela eta berarekin egoteko gogoa zuela
eta amerikanu harekin egoteko Gernikara berak eramango zuela esan
zionatean, Aitak 6.000 errealak zor zizkion lekeitiarra izango zela pentsatu zuen,
eta lekeitiarra dirua itzultzeko zetorkiola. Baina etxeok iragarri zioten
moduan, ez zen hala izan. Etxera heldu zenean, ea nor izan zen amerikanu
hori galdetu zioten etxeok barreka. Beste lagun bat izan zela erantzun zien
aitak, eta etxeok barreka erantzun: “Bai horixe! Ez ha 6.000 erreal
zor izan deusuna ez da izan hori!”.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.

2026-08-07

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkartea

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com